



AHT egitasmoari eta egungo trenbide sarea hobetzeko eskatuz 2.852 alegazio aurkeztuta / 9

Irati Irigoien urdiaindarra, Espainiako Junior Mailako Taekwondo txapeldunordea / 17 / 24



Haize Berriak bandak eta lau musika eskoletako ikasleek kontzertua emanen dute bihar / 23

Sakanako Mankomunitateak 7,7 milioi euroko aurrekontua du aurten / 7



Nafarroako Herri Kirol Jokoen lehen jardunaldia jokatu zen Etxarrin. Etzi, Betelun / 18

Altsasuko auzia "terrorismo legedi zehaztugabearen adibidea da"
Alrendako / 11

Pentsio duinen alde kalera ateratzen segituko dute pentsiodunek, hurrena gaur / 8

Greba morea

Martxoaren 8ko greba feministarekin bat egitera deitu dute / 2-5



Euskal Herriko Mugimendu Feminista

Emakumeek*planto

Eman bizia zure etxeari



**ERAIKUNTZA
ETA ETXEBIZITZA
GEHIGARRIA**

Martxoak 23

Eskatu zure iragarkia **martxoaren 9a baino lehen**
publi@guaixe.eus • 948 564 275 • publicitate@guaixe.eus



Lan, zaintza, kontsumo eta ikasle grebara deitu zituzten Sakanako emakume guztiak.

Emakumezkoen greba dakar martxoaren 8ak

Euskal Herriko mugimendu feministan grebara deitu ditu emakumezkoak heldu den ostegunerako. Protesta deialdi horrekin emakumezkoak "zapaltzen" dituen ekonomia eredua, indarkeria matxista, arrazakeria eta kultura patriarkala salatuko dituzte.

SAKANA

Joan den urtean 70 herrialde baino gehiagotan emakumeek nazioarteko emakumeen grebarako deialdia zabaldu zuten. Deialdi global harrekin emakumeen kontrako indarkeria eta desberdintasun modu ugariak salatu nahi zituzten. Aurtengo martxoaren 8rako nazioarteko deialdia berriro deitu eta 177 herrialdeetan egin da greba feministarako deia, tartean Euskal Herrian. Horrek bakarrik aurten Emakumearen Eguna aurrekoetatik desberdintzen du.

Euskal Herriko mugimendu feministak deitu duen greba ere ez da ohikoa izanen. Haren ondoren ez da gelditutako lantegi

eta langile kopuruen arteko borrokarik izanen. Izan ere, ohiko lan munduaz harago doa greba feminista, emakumezkoak "menpean hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, heteropatriarkala eta arrazista salatuz". Hori guztia deialdi anitzarekin eta irudimentsuarekin egin nahi dute.

Greba feministarekin eskatzen da enpresan lanik ez egitea (11:00etatik 15:00etara eta 18:00etatik 22:00etara) eta ofizialki lan gisa aitortzen ez diren beste egiteko batzuk ere ez egitea, esaterako: etxea ez garbitzea, haurrak ikastetxera ez eramatea edota adineko pertsonak ez zaintzea. Horrekin guztiarekin urte

guztian aitorten jasotzen ez duten lanak ikusgarri bihurtu nahi dituzte, haiek ez eginez. Baina lan eta zaintza grebarekin batera, kontsumo eta ikasle greba ere deitu dituzte.

Deialdiaren balioa

Emakumeok planto!* lelopean, Sakanako mugimendu feministak "muga guztiak gaitutuko dituen greba feministan" parte hartzera deitu du, "espazio publikoa okupatu eta gure eguneroko aldarriak lau haizetara zabaltzeko".

Emakumeen Eguna hausnarketarako eguna ere izan nahi du. Alde batetik, emakumezkoak batu eta elkarrekin lan egitearen

balioaz jabetzeko aukera emanen du. "Baita gure arteko desberdintasun eta aniztasunetik ikasteko ere: emakume helduek, migratzaileek, gazteek, bollerekin, transexualek, neskatilek, bisexualak, dibertsitate funtzionala dutenek, langabeek, pentsiodunek... elkarren babesa eta besteen errealitateaz ikasteko aukera paregabea izanen dugu".

Mugimendu feministak "isildutako eta ikusezin bihurtutako ahots guztiak bozgorailua jarri nahi diegu, merezi dugun aitortza eta balioa izan dezagun".

Deitzaileak gaztigatu dutenez, martxoaren 8ko greba feminista "ez da helburua, aurrea begirako borrokan mugarri bat baizik. Datozen egun eta urteetan segituko dugun borroka bulkatzeko egun bat, indartu eta aurrera begira lan egiteko ilusioa emanen digun egun bat".

Zein da gizonzkoen egitekoa?

Mugimendu feministatik kontsumo greban parte hartzera deitu dituzte gizonzkoak. Aldi berean, izan aita, lagun, anaia, irakasle, enpresaburu, lankide... gizonzkoek eskatu diete haien inguruko emakumezkoen mobilizazioetara joateko erraztasunak emateko.

Hala, aita direnak seme-alabez arduratu eta etzabaida eta ikasle greba lagundu beharko luke, gurasu elkartean eta ikastetxean eraginez. Laguna denak umeen zainketaz arduratuz bat egin dezake. Emakumezkoen lankide den gizonen hainbat modutara bat egin dezakete deialdiarekin: lantokian greba feminista zabalduz eta babestuz, zerbitzu minimoak eginez, emakumezkoen lana eginez, eguneko soldata mugimendu feministari emanez edo emakumezkoen grebako erresistentzia kutxa antolatuz. Enpresaburuak lantokiko emakumezkoen elkartasuna adierazi eta errepresaliak, trabak eta arazoak saihesteko jarrera har dezake.

Gizonzko ikaskideei eskatzen zaie klasera joanen ez diren emakumezko ikaskideak eta

haien lanuztea babesteko. Irakasleei, berriz, martxoaren 8an zerrendarik ez pasatzeko, ikasleen huts egitea "justifikatuta" dagoelako: "gu hiltzen ari dira" edo "bizi nahi dugu" aldarrikatzen ari direlako kalean.

Familian, elkarbizitza taldean edo afektu-inguruan, berriz, "zaintza behar duenik badago, ostegunetik aurrera emakumezkoek ohituraz betetzen duten lan horretaz arduratzeko" eskatzen dute. "Gaurtik bertatik erantzunkidetasunez zaintza lanez arduratzera deitu dute, dela umeak zainduz, dela etxeko lanak eginez..."

Emakumezkoen batekin harreman sexu-afektiboak dituztenei haiek martxoaren 8an kalean egoteko behar duten laguntza guztia emateko eskatu diete mugimendu feministatik. Aldi berean, gizonzkoek eskatu zaie greba feministaren deialdia lagun-artera eta taldeetara zabaltzeko. Militanteak direnek greba euren eremu politikora eramanez deizakete.

Aurreko egoerarik ez duen gizonzkoen bat badago eta osteguneko mobilizazioetara badoa, mugimendu feministatik eskatu dute gizonzkoak atzeko partean jartzeko, agindurik eman gabe eta manifestazioa zuzentzeko asmorik gabe, laguntzeko asmoarekin.

Azkenik, mugimendu feministatik grebaren aurretik gizonzkoendako proposamena egin dute: beste gizonzkoekin elkartu eta "zuen maskulinitatearen inguruan elkarrekin hausnartzea, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko; gizonzkoen pribilegioez, kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartea lortzeko bidean pausoak emateko".

BORROKA FEMINISTAK LAN ARLOA, POLITIKA, BITZTA ETA EKONOMIA ZEHARKATU BEHAR DITUELA DIOTE



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Izartxoaren duen leloa

Euskal Herriko mugimendu feministak egin duen greba deialdiak "Emakumeok* planto!" leloa du. Greba feministaren deitzaileendako izartxoak emakume gisa identifikatzeko modu ugari daudela adierazten du.



EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

Nola parte hartu M-8ko deialdian?

Lantokietan eta ikastetxeetan deitu diren lanuzteetara batuz. Herrietan deitutako mobilizazioetara joanez. Bi hitzordu nagusi izanen dira: 12:00etan eta 20:00etan. Mandarra balkoitik eskegiz, zaintza lanak azalertzeko. Merkatuan kontsumitzeari utziz. Batez ere langileen esplotazio ikur diren enpresa handietan, objektutzat hartzen gaituztenak, alegia. Greba zabalduz eta zure herrian antolaketan parte hartuz. Mobilizazioetan zure eremuko aldarrikapenekin blokea antolatu dezakezu. Ikasleen lanuzte eta mobilizazioekin bat eginez. Zaintzari utziz, lan hori beste emakumeen esku utzi gabe; besteek egin dezatela.

Emakumezkoen nazioarteko grebarekin bat egiteko arrazoiak

Ekonomia ereduak

Mugimendu feministak grebara deitzeko arrazoietakoa bat da gaur egungo ekonomia ereduak emakumezkoak "zapaltzen" dituela. Horren adibide ugari eman dituzte. Hasteko, Europar emakumezkoek astero 26 ordu ordaindu gabeko lanak egiten dituzte gizonezkoek 9 ordu egiten dituzten bitartean. Inork aitortzen ez duen lana da, ikusezina.

Emakumeek lanaldi bikoitz eta hirukoitzak egiten dituzte gizonezkoak eta estatuek ez direlako zaintzaz arduratzen. Gaineratu dutenez, Hego Euskal Herrian gizonezkoek emakumezkoek baino %35,6 gehiago kobratzen dute, enplegu berdinetatik soldata bera kobratzea exijitzen dute. Aldi berean, emakumeek lan prekarietate handiagoa jasaten dutela nabarmendu dute.

Emakumezko langile asko lan erregimen orokorretik kanpo daude, lan-eskubiderik gabe: etxe barruko langileak, nekazariak, sexu langileak, aniztasun funtzionaladun langileak, langile autonomoak... Bestetik, etxe barruko langileak esklabo gisa bizi direla nabarmendu dute. Gizartean amatasuna goraitzen den bitartean lan-merkatuan zigortu egiten dela gaineratu dute.

Egun hizpide diren pentsioak, emakumezkoen kasuan baxuagoak direla eta haien zahartzarora txirotzen dutela gaineratu dute. Gure jendartean emakumezkoak pobreakoak direla eta gizarte politiken bazterketak gehiago pairatzen dituztela gaitzatu dute. Azkenik, emakumezko gazteei trebakuntza eta esperientzia gehiago exijitzen zaizkie baina, aldi berean, lan-prekarietatea pairatzen dutela azpimarratu dute.



Arrazakeria

Greba deialdiarekin "egungo eredu neoliberal predataile, arrazista eta koloniala auzitan jarri" nahi dute. Horregatik, arrazakeriak emakumezkoak "akatzten" dituela nabarmendu nahi izan dute. Horregatik, "ez ditugu ahazten hainbat arrazoiengatik euren herrialdea utzi dituzten pertsonen bizitzak".

Greba feministaren deitzaileak "emakumezko etorkin eta errefuxiatuek mugetan jasaten duten indarkeria matxista eta kriminalizazioa" salatu dituzte. Gaitzatu dutenez, "gure janzkeragatik espazio publikoa hartzeko dugun eskubidea mugatzen dute".

Gainera, legez kanpoko egoeran gauden emakumezkoek eta atzerriarren legea jasaten dutenek indarkeria matxistarekiko "berezi babesteko" daudela nabarmendu dute. Azkenik, azaldu dute nazioarteko zaintza-sarea osatzen dutela: "gure seme-alabak eta adindunak beste emakumezko batzuen esku uzten ditugu han, hemen zuenak baldintza oso prekarioetan zaintzeko".



Indarkeria matxista

Greba feminista deitu dute indarkeria matxistak emakumezkoak "jipoitzen" dituelako. Eta datuak eman dituzte: 2010-2015 urteen artean 33 emakume hil dituzte Hego Euskal Herrian. Eta erauldako emakumezko guztiak falta zaizkiela ohartarazi dute.

Sexu-esplotaziorako salerostearen kontra egin dute, "emakumezkoen eta umeen merkantilizatzearen adierazpentzat" baitute. Aldi berean, "nazkatuta" daude "kaleko jazarpena eta sexu erasoak jasateaz eta alor intimoan kontrola, xantaia eta apalkuntza pairatzeaz".

Mugimendu feministatik salatu dutenez, "beldurrean hezten gaituzte, gure testigantzak zalantzan jartzen dira eta salatzen dugunean epaituak gara". Eta nabarmendu dute, "ez gara erantzuteko gaitasunik gabeko biktima pasiboak".

Bestetik, Euskal Herriko mugimendu feministak lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualekiko dagoen fobia salatu dute, horrek haien "biziak estutzen dituzten armairuetan giltzitzen gaitu". Esan dutenez, "indarkeriari aurre egiteko baliabide publikoak ez dira nahikoak". Eta gaineratu dute "zigor-sistema patriarkala" dela, eta "kartzeletan indarkeria bikoitzari aurre egin behar diogu emakumezko izateagatik".



Patriarkatuaren kultura

Martxoaren 8ko grebaren deitzaileendako "patriarkatuaren kulturak emakumezkoak baztertu, objektu bihurtu eta estereotipatzen" ditu.

Horri gaineratu diote, historia, literatura eta zientzia liburuetatik emakumezkoak "ezabatu" dituztela. Horregatik ikastetxeetan "ere hezkuntza sistema patriarkal eta androzentrikoa nagusitzen" dela adierazi dute.

Kritiko azaldu dira hedabideekin, publizitatearekin eta sareekin, "emakumezkoak objektu sexualtzat gaituzte, kontsumituak izateko prest gaudenak". Sakanako mugimendu feministak azaldu duenez, "hedabideek gure arreta desbideratzen dute, ahaztu eta dirua xahutu leloa gauzatzera animatzen gaituzte kontsumo eredu berrien bidez. Horretarako estereotipo sexistak sistematikoki barreiatu eta emakumezkoen irudiak sexu-objektu gisa erabiltzen dituzte". Horregatik ohartarazi dute "genero estereotipoak hedabideetan, solasaldietan, erakundeetan erreproduzitzen" direla.

Bestetik, mugimendu feministatik esan dute "hierarkia katolikoak, Estatuak edo botere ekonomikoek gure gorputz eta sexualitatearen gaineko erabakiak ukatzen" dizkiela. Azkenik, greba feminista deitu dutenek azaldu dute emakumezkoak politikan "eragiteko eta erabakitzeke ahalmena duten eremuetan ez" daudela.



Martxoaren 8aren inguruan hitzordu ugari

Ostegunerako propio deitutakoekin batera aurretik eta ondoren ere deialdiak daude

UHARTE ARAKIL

Uharte Arakilen emakumezkoen grebaren berri emateko informazio mahaia jarri zuten larunbat eguerdian. Kinto ospakizunak ziren herrian eta mugimendu feministako kideek heldu den ostegunerako deialdiaren berri zabaltzeaz aparte, besoko moreak ere banatu zituzten.

Gaurtik aurrerako egitaraua du Uharte Arakilgo mugimendu feministak. Informazio mahaia jarriz hasiko dira. Hala, asteleheneko dokumentalaren bidez, "familia eta elkarbizitza egoera desberdinak, desira aukerak, identitateak eta sexu/genero sistemak gure bizitzan duen eragina praktika desberdinen bidez" azaleratzen duen dokumentala emanen dute, gaiaren inguruko hausnarketa sustatzeko. Osteguneko deialdiekin segituko dute. Prestatutako eki-



Informazio mahaia. UTZITAKOIA

taldiak despeditzeko, mugimendu feministaren historiari buruzko hitzaldia iragarri dute. Uharte Arakilgo mugimendu feministak herritarrak antolatutako ekitaldietan parte hartzea gonbidatu ditu.

Uharte Arakilgo egitaraua

Martxoak 2, ostirala

- 18:00 Informazio mahaia eta propaganda egiteko auzolana.

Martxoak 5, ostirala

- 18:00 Arrakala dokumentala, udaletxean.
- 20:00 Alondigan afari autogestionatua.

Martxoak 8, osteguna

- 11:00 Kafe-tertulia, Alondigan.
- 12:00 Eltze-jotzea eta kontzentrazioa.
- 19:00 Altsasura joateko elkarretaratzea.

Martxoak 12, astelehena

- 18:00 Gure genealogia feministak. Hizlaria: Miren Aranguren.

Ostegunetik haratago doa Emakumeen Eguneko egitaraua

Arbizuko mugimendu feministak data more ugari jarri ditu herriko egutegian

ARBIZU

Egitaraua

Maiatzak 7-14

- 16:30-20:00 Emakume sortzaileen erakusketa, udaletxean.

Martxoak 8, osteguna

- 09:00 Plaza eta herria apaintzea.
- 17:00 Merienda Argi Bidea elkartean, gizonetzkoek egina.
- 18:00 Eltze-jotzea.
- 19:00 Emakumeek* planto! elkarretaratzea.

Martxoak 10, larunbata

- 19:00 Erradikalak gara ikuskizuna, Argi Bidean.
- 21:00 Emakumeen afaria, Aldabide elkartean.

Martxoak 16, ostirala

- 18:00 Emakumeak eta espetxea mahai-ingurua, udaletxeko batzar aretoan.

Martxoak 10, larunbata

- 19:00 Iparraldeko neska, liburutegian

Berdintasun politikak sustatzen segituko du

Altsasuko Udalak Martxoaren 8ko erakunde adierazpena onartu zuen herenegun eta berdintasun politikak sustatzen segitzeko konpromisoa hartu du. Osteguneko greba feministari ere babesa azaldu dio udalak

ALTSASU

Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta Altsasuko Udalak erakunde adierazpena onartu zuen herenegun eta lau konpromiso hartu zituen. Batetik, herritik berdintasun politikak sustatzen segitzea. Horrekin batera, Altsasuko Udalak herriko emakumezkoen errealitate espezifikoak agerian jartzen segitzeko konpromisoa hartu zuen. Horri lotuta, indarrean dauden desberdintasunen aurrean neurriak hartuko ditu.

Emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko desberdintasunak gaituzteko jardunak indarrean jartzeko konpromisoa hartu zuen



Altsasuko Udalaren aurreko bilkura bat.

Altsasuko Udalak. Azkenik, mugimendu feministaren borrokak eta eskaerak laguntzeko eta babesteko konpromisoa hartu zuen udalak. Horren ondorioz, nazioarteko mugimendu feministak deitutako emakumezkoen grebari Altsasuko Udalak babesa azaldu dio.

Argudioak

Martxoaren 8ak herritarrak, gizarte eragileak eta erakundeak "emakumezkoen eta gizonetzkoen benetako berdintasunaren ispiuaren aurrean jartzen gaitu, eta beti ez digu irudi ona bueltatzen". Emakumezkoen eta gizonetzkoen "eskubide, tratua eta aukera berdintasunaren aldeko arlo askotako hamarkadetako borrokaren ondoren lortutako aurrerapenen balantzea egiten dugu. Baina baita moteltzen, atzera egiten eta lortzeko erronkak diren horiei ere erreparatzen diegu".

Udalak onartutako erakunde adierazpenak bereziki "lanaren sexu-bereizketaren ondorioei eta eraginari" erreparatu dio. Onartutako adierazpenean gaur egun emakumezkoek ordainduak

ez diren etxeko lanei eta zaintzari eskaintzen dion denbora nabarmentzen da eta haren banaketan "desoreka" dagoela gaitzatu du. Eta datua eman: emakumezko nafarrek egunero 4 ordu eta 10 minutu eskaintzen diote lan horiei, gizonetzkoek, berriz, 2 ordu eta 36 minutu. Lan merkatuan emakumezkoen sarbidea ia % 10 txikiagoa dela gaitzatu du eta, gainera, emakumezkoek gizonetzkoek baino % 28,4 gutxiago kobratzen dutela ere. "Lan merkatuaren segregazio horizontala eta bertikala". Egoera hori "ikusgarria bada ere, herritarren eta erakundeen begietara askotan ikusezina bihurtzen da, horrela desberdintasun hori naturalizatuz eta erreplikatur; emakumezkoen bizi eta lan aukerak murriztuz, baita haien ekonomia eta pertsona autonomia murriztuz".

Aurrekoaren ondorioa da emakumezkoak diru eta denbora pobrezia izatea. Hau da, beraien dirua eta denbora ez izatea. Emakumezkoen eta gizonetzkoen "desberdintasun-arrakala" salatu du udalak.

Greba feministako ibarreko mobilizazioak

Sakanan barna herriz herri prestatutako egitarauetz aparte, Emakumeen Egunean ibar guztiko pertsonak bildu nahi dituzten deialdiak egin ditu ere mugimendu feministak eta sakandarrak haietan parte hartzera deitu ditu

SAKANA
Martxoaren 8an besoko, peto edo arropa morea janztera gonbidatu dute Euskal Herriko mugimendu feministatik. Altsasun ostegun eguerdirako giza kate zaratsua deitu dute. Horregatik, soinua atera dezakeen edozein gauza eramateko eskatu dute deitzaileek. Bi orduko

ibilbidea izanen du giza kateak, 12:00etatik 14:00etara. Iortia kultur gunetik abiatuko da eta honako ibilbidea egingen du: Aita Barandiaran adinduen egoitza, autobus geltokia, San Juan kalea, suhiltzaileen-egoitza eta Gure Etxea eraikina.

Martxoaren 8ko Sakanako manifestazioa Altsasun egingen

da, 20:00etan. Gizonezkoek ere parte hartzeko aukera izanen dute, mistoa izanen baita. Mobilizazio alai eta koloretsua izatea nahi dute mugimendu feministako kideek, horregatik zarata egiteko tresnak eramatea eta pelukak edo mozorroak janztera gonbidatu dute, dibertigarriagoa izateko.



Aurreko ostegunean egin zuten greba feministan parte hartzeko deia.

Ikasleak ere
Ikastetxeetan irakasleek deialdiarekin bat egiteko hartzen duten erabakiaz harago, hainbat ikasleek goizeko geldiarekin bat egingen dutela jakinarazi dute. Etxarri Aranatzan dagoen Andra Mari ikastolan hezkidetzari buruzko prestakuntza saio mistoa antolatu dute ostegunerako,

ikastetxean bertan egingen dena. Altsasu institutuan, berriz, mutilen zuzendutako maskulinitateari buruzko prestakuntza saioa izanen da. Bitartean institutuko eta Iñigo Aritza ikastolako ikasleek elkarrekin manifestazioa egingen dute herriraino, ostegun eguerdian Altsasun egingen den giza-katera batzeko.

Altsasun Emakumeen Eguna, eta gehiago ere

Herriko mugimendu feministak martxoaren 8aren inguruan prestatu du egitaraua. Udalak berea du ere

ALTSASU
Altsasuko mugimendu feministak greba deialdia prestatzen buru belarri aritu da azken asteetan. Horren emaitza da asteazkenarako eta ostegunerako antolatu duen egitaraua. Bestetik, Altsasuko Udaleko Berdintasun Zerbitzuak, urtero moduan, martxorako deialdiak egin ditu. Dagoeneko emakumezko askoren agendan tokia duen Lilasterketa, lasterketa ez lehiakorra, antolatu du atzera ere. Kirolari lotutako saio bat, herriko kirol elkarteetako zuzendaritza batzordeko kideei zuzenduta dagoena, eta literatur hizketaldia izanen dira ere.



Mugimendu feministaren batzarra.

Egitaraua

Martxoak 7, asteazkena

- 12:00 Esku-orrien banaketa, azokan.
- 19:00 Esku-orrien banaketa.
- 24:00 Mandarrak leihora.

Martxoak 8, osteguna

- 09:00 Megafonia, Gure Etxea eraikinean. Arte instalazioa egun guztian.
- 11:00-12:00 Juntadizoa eta trikitalariak, plazan.
- 11:00-12:00 Juntadizoa eta trikitalariak, plazan.
- 12:00-14:00 Giza-katea.
- 14:00 Bazkaria.
- 20:00 Manifestazioa.

Martxoak 18, domeka

- 12:00 Lilasterketa.

Martxoak 20, asteartea

- 19:00 Nola sustatu emakumeen parte hartzea kirol elkarteetan.

Zehaztu gabeko data

- Literatur hizketaldia.

Mende laurden emakumeari buruzko jardunaldiak antolatzen

Egitaraua

Martxoak 2, ostiralak

- 20:00 Pecadoras antzezlan, Detritus Teatrusena.

Martxoak 3, larunbata

- 08:00 12 orduko emakumezkoen frontenis txapelketa.

Martxoak 7, asteazkena

- 18:00 Iruñera zinema ikustera joateko irteera.

Martxoak 8, osteguna

- 12:00 Kontzentrazioa, plazan.

Martxoak 10, larunbata

- 22:00 Afarria eskolako jangelan. Lorena Arangoaren saioa eta festa.

Martxoak 11, igandea

- 18:30 Helduendako berdintasunari buruzko film laburrak, Katti Goikoetxeak eta Maider Zabaletak bideratuta, Pikuxarren.

Martxoak 16, 17, 18

- Irurtzungo antzerki tailerraren En el estanco emanaldia

Martxoak 23, ostirala

- 19:30 Tekoulebon aukera berdintasuna eta Nikaragua iparraldeko emakumezkoak proiektuak aurkeztuko dituzte Rodek fundazioak eta Mugarik Gabek. Kultur etxean.

Martxoak 25, igandea

- 10:00 Mural margotzea, Gernika parkean.

IRURTZUN

Emakumeen Eguneko egitaraua, beste behin ere, eta 25. aldia da, Irurtzungo emakumeen taldearen eta Kultur Kontseiluaren eta Irurtzungo Udalaren artean prestatu dute. 25. Emakumeari Buruzko Jardunaldiak, makina bat jarduera elkartu ditu. Antolatutakoan bihar jokatu den 12 orduko emakumezkoen frontenis txapelketa dago. Larrazpik antolatutako ekimenean parte hartu nahi duenak 616 995 597 telefonora hots egin behar du. Eta ezin afaria falta. Heldu den larunbatean, hilaren 10ean izanen da. Afarira joan nahi dutenek astelehenera arte eman dezakete izena Pikuxarren edo Fruitis dendan.



Mugimendu feministaren batzarra.



ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Amaia, iruinalaba

Egun hauetan bi ekimen berritzaile sustatu dira: bata, mugimendu feministak proposatutako M8 greba eguna, emakumeen berdintasuna helburu; bestea, euskara eragileek Euskaraldia, euskararen erabilera indartzeko. Halaber, aste hauetan, tsunami moduan barreiatu baita haren izena, ezagun bihurtu zaigu Amaia Romero abeslari gaztea, OTko irabazlea. Neska gaztea, jatorra, artista, eta, batez ere, naturala; itxurakeria eta plastikotasuna alde batera utzi dituen. Baita ere, guztiz interesgarriak izan dira Amaiak bi gai horien gainean esandakoak, sinpleak baina argiak.

Feminismoari dagokionez, "feminismoa emakumearen eskubideen bilaketa da, berdintasuna eta askatasuna helburu dituena; izan ere, gizarte honetan, denak gara pixka bat matxistak eta ez gara konturatzen" erantzun zion galdera bati. Gainera, OTk iraun zuen bitartean, ezaguna egin zen "zergatik eraman takoiak, nire altuerarekin pozik banago?", edo "zergatik depilatu? emakumeok ere ileak ditugu eta!" bezalako ateraldiez, irudia eta Itxurakeriaren mundu horretan, ez oso "zuzenak".

"ZERGATIK ERAMAN TAKOIAK, NIRE ALTUERAREKIN POZIK BANAGO?"

Euskarari dagokionez, ez etxean ez eskolan ikasi ez badu ere, euskarekiko aldekatasuna. 'Gora Sanfermin' oihukatu ondoren, euskara ez jakiteagatik desentzaturik eta bere bizitzako helburuetako bat dela aldarrikatuz. Hori dena

Iruñeko udal plaza lepo beteta zuten gazteei zuzenduta. Argi islatu zuen, euskara alde batera utzita, ingelesa soilik sustatzen duen irakaskuntza elebitasunaren ereduaren porrota. Iruinalaba izanik berezkoa edo naturala izan behar bailitzateke euskara jakitea!

Horregatik, Amaia, arrakastarik gozoena, eta hain naturala izateagatik eta hain ekarpen ederrak egiteagatik, zorionak! Gora M8 eta aurrera Euskaraldia!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Botikak

SAKANAKO GIZARTE ZERBITZUAK

Azken urteotan eta gaur egun, nabaria da diru eskasiak eragina izaten duela gure bizitzako esparru ezberdinetan, bizi baldintzetan, elikagaiak eskuratzerako aukeran, kontsumoan, aisialdian, etxebizitzaren mantenuan... eta baita osasunean ere; azken honekin lotuta, batetik osasunean duen eragin ezkorregatik (estresa, ongi ez elikatzea, depresioa, isolatzea eta abar) eta bestetik botikak eskuratzeko edo erosteko ematen diren zailtasunengatik. Horregatik, eta hau ekiditeko, finantziario publikoari lotuak dauden botiken kostua traba ez izateko, eta tratamenduekin aurrera jarrai ahal izateko,

laguntza ekonomiko berria onartu zen. Diru-laguntza honen helburua da botiken prezioa oztopoa ez izatea baliabide ekonomiko gutxiago duten pertsonentzat; orain arte pentsiodunak ziren laguntza hauen onuradun bakarrak.

Hemezortzi mila euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsona eta familiekin (errenta aitorenpeko aurrezki eta likidazio orokorreko datua hartuko da kontutan) botikak ordaintzeko laguntzak jaso ahalko dituzte. Osasun-txartela edukitzea derrigorrezkoa da.

Tramitea, baldintzak betez gero, bakoitzari dagokion osasun etxean, Iruñeko Farmaziako Prestazioaren Kudeaketarako Zerbitzuan

edo www.botiketakolaguntzak.nafarroa.eus web-orrian egin daiteke; osasun txartela edo NANA eta banku-kontu bat aurkeztu behar dira. 2018ko urterako izango da laguntza. Botikak Nafarroatik kanpo edo paperezko erretzetaren bidez erosi direnean fakturak aurkeztea beharrezkoa izango da. Eskaera aztertuta onartua bada, ebazpenaren bidez diru-laguntzaren berri jasoko da etxean eta hiru hilabetero egingo dute ingrosua emandako diru korrantean.

Azalpen gehiago norberaren osasun etxean edo ohiko farmazian, atencionfarmacia@navarra.es helbide elektronikoaren bidez edota 848 429687/ 848 429092 telefonoetan. Informa zaitez eta badagokizu, eskaera egin!

OBJEKTIBOTIK



Azokaren orde, elurra eta haizea Altsasun

Asteazkena azoka eguna da Altsasun. Baina elurra eta haizea bolada galantek hartu zuten ohiko postuen tokia. Panorama ikusita, postuak ez jartzea erabaki zuten merkatariak

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:
Eñaut Agirrebengoa Apaolaza
Zuzentzailea:
Felix Alzelai Iriarte

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Sakanako Mankomunitatearen batzarra. ARTXIBOA

Mank-en aurrekontua 7,7 milioikoa izanen da aurten

Ur eta hondakin zerbitzuetako inbertsioak egingen dira aurten. Berdintasun teknikaria kontratatuko du ere

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak aurten 7.714.468,2 euroko aurrekontua izanen du aurten, joan den urtean baino milioi bat gehiago. Hala onartu zen otsailaren 22an egindako batzarrean. David Oroz Alonso presidentek jakinarazi digunez, "diru sarreak ez dira aldatu. Baina hainbat lan sartu direlako egin du gora aurrekontuak. Haiek egiteko diru-laguntzak ditugu".

Lanen berri eman aurretik Orozek jakinarazi digu emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasuna landuko duen teknikari bat kontratatuko dutela. Horretarako 10.000 euro jarri dituzte. Altsasuko Udaleko teknikariarekin koordinatuta lan egingen duela jakinarazi digu.

Lanak

Ur Zerbitzuan hiru lan aurreikusten dira. Batetik, ur sareko ihesak atzemateko inbertsioa egingen da, 10.000 euro. Uraren behe-hornidurako lanetarako 178.000 euro jarriko dira, gehiena Lakuntzan eta Arbizun berriko diren sareak pagatzeko. Bestetik, Iribasgo iturburutik Irurtzunera arteko ur sarea konpontzeko 535.449 euro bideratuko dira. Heldu den urtean Urdalurko ur sarea Satrustegitik aurrera luzatzeko lanak egingen dira.

Hondakin bilketako Zerbitzuan gaur egun tramitean dauden hainbat lan urtean zehar egingen hastea aurreikusten da. Batetik hondakindegia egokitzeko lanak

(ikus aldamenean), hondakindegian bertan konposta egiteko planta eta Altsasuko eta Ziordiko garbiguneak. Horietako aurrekontua 310.773,02 euroko aurrekontua du. Bigarrenak, berriz, 57.000 euro. Toki Azpiegitura Planetik Mank-ek bi lan horietarako 56.082 euro jasoko ditu eta gainontzekoa Nafarroako Hondakinen Partzuergoak ordainduko du. Azkenik, kamioi bat erosteko 135.000 euro bideratuko ditu.

AHT eta konposta

Sustapen Ministerioak proposatu duen Abiadura Handiko Trenaren ibilbideak Arbizuko hondakindegia ondoan egiteko den konpost planta hartzen du bete betean. Egungo hondakindegiko eremuaren iparraldean egitekoa da Mank azpiegitura hori. Horretarako, Arbizuko Udalarekin hitzarmena sinatu ta du.

Orozek azaldu digunez, Nafarroako Gobernuari egoeraren berri eman diote eta diru-laguntza mantenduko duela ziurtatu du. Bitartean, kokapen berria zein izan litekeen aztertzen ari dira Mank-en. Horregatik guztiatik AHT egitasmoari alegazioa aurkeztu dio Mank-ek.

Konpost plantak 855.848,92 euroko aurrekontua du. Toki Azpiegitura Planeko 565.850,53 euroekin, Nafarroako Hondakinen Partzuergoko 141.462,63 euroekin eta Ingurumen Ministerioaren 148.553,76 euroekin pagatuko da.

Hondakindegian zati bat itxi eta berria zabaltzera

Sakanako Mankomunitateak 1.595.000 euroko inbertsioa egingen du (gehi BEZ). Horietatik, Nafarroako Gobernuak 1.421.000 euro jarriko ditu eta gainontzekoa ibarreko erakundeak. 2010etik egitekoa zen lana krisiagatik atzeratu zen

SAKANA

Sakanako Mankomunitateak Arbizuko hondakindegian industriako hondakin bizigabe ez arriskutsuak gaur egun botatzen duen tokia itxi egingen du. Eta horrekin batera beste berri bat zabalduko du hondakindegia eremu berean. Azken hori zortzi urteko zerbitzua emanen die ibarreko enpresei. Lanak egingen duten enpresek euren eskaerak martxoaren 17ko 15:00ak arte aurkeztu ditzakete. Aurrekontua 1.555.062,01 eurokoa da eta eskaintza onuragarrienari emanen zaio lana.

Egungo hondakindegia 32.280 metro karratu itxiko da. Lan horietarako Ziordiko Aralur enpresan zenaren inguruan dauden hondakin begetalen 7.000 metro kubiko erabiliko dira. Esan bezala, industriako hondakin ez arriskutsuak eta konpostatze prozesuan sortutako errefusa jasotzeko toki berria egingen da. Hura igarazgaitz



Hondakindegia ikuspegia. ARTXIBOA

bihurtzeko "plastiko" bereziekin batera 50 cm-ko buztin geruza jarriko da. Buztin hori hondakindegitik gertu dagoen Arbizuko partzela batetik aterako dute. Lixibiatuak jasotzeko, haiek punpatzeko tresna eta eramate-

ko hoditeria jarriko dituzte. 22.000 m² izanen ditu eta 98.000 m³ hondakin jasotzeko ahalmena izanen du. Hondakinak jasotzeko toki berri horrek 10 urtez erabiltzeko aukera izanen da, bataz beste, urtero 9.000 m³ jasotzea aurreikusten baita.

Urte akaberarako

Mank-eko lehendakari David Oroz Alonsok esan digunez, tramitazioa despedituta lanak maizta aldera hasiko dira eta urte akaberarako despedituko dira. "Lanak egin bitartean erabili beharko da, beraz bat egin bitartean bestean botako dira. Berria egin eta gero itxiko da zaharra". Europak hala eskatuta hondakindegia guztiak itxi behar dira eta Arbizuko ixteko aurreneko asmoa 2010ekoa da. Baina finantza krisiak Nafarroako Gobernuari dirurik gabe utzi zuen eta guztia atzeratu zen. Gobernuak legegintzaldi honetan heldu dio asmo horri.

BIZITZA DARIO

KOMIKI LANTEGIA

(INARI MARTIARENA "MATTIN")



LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleendako

MARTXOAREN 16AN

Arratsaldeko 18:00etan
Urdiaingo liburutegian

Izena eman
urdiainlib@cederna.es
helbidera mezua bidalita

Antolatzailea:

Mank

s a k a n a

Laguntzailea:

URDIAINGO LIBURUTEGIA



Telefono bidezko deialdia jaso hala gero eta jende gehiago batu zen. UTZITAKOA

Pentsio duinen alde kalera atera ziren ehun bat pertsona

Gaur, ostirala, 12:00etan, Zumalakarregi plazan eginen den kontzentrazioan parte hartzera deitu dute

ALTSASU

Ehun bat pertsona elkartu ziren Altsasuko udaletxe parean ostiralean, 19:00etan. Whatsapp bidez zabalduak deialdiari erantzun zioten guztiek. Eta hura zabaldu zen heinean gero eta jende gehiago batu zen kontzentrazioan. Kanean kexu agertu ziren Espainiako Gobernuak pentsioak 2022ra arte urtero % 0,25 igotzeko erabakiarekin. Horregatik, gobernua egin zuten pentsiodunen eros ahalmenaren galeraren erantzulea. Bost urteetan % 10ekoa izan daiteke galera. Erabaki horrek makina bat pentsiodun "egoera prekarioan" uzten dituztela gaztigatu zuten. Eta belaunaldi gazteen-dako "egoera gogorragoa izanen dela" nabarmendu zuten. Eta gobernua pentsio publikoen kontrako "azken kolpea" prestatzen ari denaren susmoa azaldu zuten.

Ostiraleko protestaldian pentsio publikoak eta duinak eskatu zituzten kontzentratuek. Horretarako, pentsioak gutxienez Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) arabera gaurkotzeko eskatu zuten. Europako Gutun Sozialak aholkatu bezala 1.080 euroko gutxieneko pentsioa ezartzea eskatu zuten. Kalera ateratzen segitzeko asmoa agertu zuten. Hurrengo hitzordua gaur da, 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

Kaleko mobilizazioek Espainiako Gobernu mugiarazi dute, eta keinuren bat egin beharrean suertatu da: 80 urte inguru eta pentsio ertain edo altua dutenei errenta aitortpenen kenkaria ezartzea aztertzen ari da. Hori oso jende gutxiri eraginen lioke, 80 eta 84 urte artekoen batz besteko pentsioa 741 eurokoa delako, 10.374 euro urtean. Beraz, neurriak ez lieke eraginen.

Altsasuko Udalaren zerbitzu anitzetarako langile kontratazioa

Altsasuko Udalak zerbitzu anitzetako eta kale garbiketako enpleguaren lanpostu bat betetzeko deialdia egin du, Obra eta Zerbitzuetako lantaldean aritzeko. Aldi baterako kontratazioa da, lanaldi osoko kontratua da eta D mailako kontratua-rekin. Kontratua lanpostua behin betiko bete arte iraunen du. Altsasuko Udalaren lan deialdi horren eskabideak aurkezteko epea 30 eguneko epea larunbatean hasi zen. Udalak jakinarazi duenez, lan-poltsa eginen da hautapen prozesua gainditzen duten izangaiekin, puntuazio ordinarri zorrotz jarraituz, eta indarrean egonen da 5 urtez edo beste deialdi bat egin bitartean.

Foruzaingoaren aitortza Dorraoko erreanimazioagatik

Foruzaingoaren eguna ospatu zen larunbatean. Foru poliziaren 80. urteurrenako ekitaldi nagusian, Uxue Barkos lehendakaria buru zela, 34 sari eta errekonozimendu banatu ziren. Foruzaingoaren ohorezko metopetako bat Jose Miguel Moreno Vazquezek jaso zuen, joan zen urteko maiatzaren 25ean bihotz-biriketako geldialdia izandako dorrobar bat bizkortzean erakutsitako izpiritu zibiko eta humanitarioengatik.

Bestalde, Foruzaingoak ikertu zuen oinezko baten auto harrapaketa Altsasun, larunbatean. 70 urte inguruko gizona ospitalera eramane zuten. Gidariak alkoholemian negatiboa eman zuen.

Ministroak AHTren korridorea 2023rako egonen dela dio

Sustapen ministro Iñigo De la Serna atzo esan zuen Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren (AHT) korridorea 2023rako egonen dela. Data hori "handinahia" dela aitortu zuen ministroak berak. Azpiegitura horren jarraipena egiten ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren jarraipen batzordearen bileraren ondoren egin zituen adierazpenak. Ministroak aurrreratu zuen Castejon eta Iruñea arteko ibilbideko lanak azkartzeko hainbat tramitazio azkartuko dituela. Zaragozarekin eta Euskal Y-arekin loturak nola eta noiz eginen diren ez zuen zehaztu. UPNk eta PPK ongi hartu dituzte adierazpenok.



ERKUDEN RUIZ BARROSO

Kamarro, txirri txarro

Kamarroek Bakaikuko kaleak hartu zituzten. Bakarreoetxea elkartearen babarrunak bazkaldu ondoren, kamarro bihurtu ziren herriko gazte eta haurrak: soinean zaku oihalezko jantziak, aurpegiak estalita eta eskuetan bidean topatzen zituztenak

hanketan jotzeko makil erraldoiak eramaten zituzten. 18:00ak pasata zirenean kamarroen kalejira herriko beheko alderantz abiatu zen. Segizioa irekitzen eta ereintza iruditzen, golda zihonan hiru kamarroen artean eramaten zutena. Suko hautsa eramane zuten batek.

Ostiraleroko
SAIOA
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astehenetik ostegunera
Metropoli forala
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Ostiraleko gaiak:

- Sakanako mugimendu feminista martxoak 8ko grebaz
- Aman Komunak sarea
- AHT egitasmoari aurkeztutako alegazioez Martin Zelaiarekin

107.3 FM
beleixe
www.guaixe.eus-en ON LINE

"Udaberri-udarako prestatzen hasi gara"

MARTIN ZELAIA SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOKO KIDEA

Halako proiektua hilabete jendurrean egotea nahikoa da?
Ez. Guk garrantzitsuena aztertu dugu. Proiektu honen gakoak bilatu ditugu, eta zer iruditzen zaizkigun gako horiek. Gako horiek guretako ez dira batere aproposak.

Hitzaldietan zer pertzepzio jaso duzue?

Jende asko oso kezkatuak zegoen. Hitzaldietara gauzak argitzera etortzen ziren. Lur jabeek, adibidez, alegazioak nola egin eta zer esan zezaketen galdetzen zuten. Sakanan AHTren kontra aurkakotasun handia dagoela ikusten dugu.

Zer eskatzen da aurkeztutako alegazioetan?

Bizpahiru alegazio mota egon dira. Gako garrantzitsuenak dira: egungo trenaren hobekuntza eta mantentzea ez dela batere aztertu. Agian gaur egungo trenbidea nahikoa izan daiteke dauden beharretarako. Ezer egin aurretik hori ongi aztertu behar da. Proposatutako egitasmoa Sakanarendako oso kaltegarria da. Ibarra azpiegituren korridore hutsa besterik ez da izanen: AHT, trenbidea, autobia, errepidea, goi tentsioko lineak. Natur parkeak ere ukitzen ditu, ez zuzenean, baina bai haiek lotzen dituzten tokiak. Pasabide horiek fauna nahasteko oso garrantzitsuak dira.

Alegazioak eta gero zer?

Zer eginen dugun pentsatzen hasi gara; hau ez da hemen bukatzen. Bi hanka izanen ditu: guk hemen Sakanan prestatuko ditugunak eta Nafarroan eginen



direnak. Nafarroan hainbat talde antolatzen eta biltzen ari dira komunean zer edo zer antolatzeko helburuz. Udaberri-udarako litzateke. Handik, ziur, hainbat mendi-martxa aterako dira, Tafalla aldean, Iruñerrian eta Sakanan. Tren ibilaldi bat, geltoki bakoitzean ekitaldi bana egingez eta guztia grabatzen. Garila aldera bizikleta martxa izanen litzateke. Guztia zehaztu eta onartu gabe dago oraindik. Sakanan gauzak gehituko ditugu. Sakandarrekin hitz egin nahi dugu, konbentzitu. Lanak hasten direnean, orduan mugituko dira. Altsasun, adibidez, oso mantso egon da jendea.

Alegazioen ebazpenak noizko?

Normalean kostatzen da; urte bat edo bi. Proiektu honekin azkar joan nahi dutela pentsatzen dugu. Ikusten ari gara, adibidez, bai Nafarroako bai EAeko EAJ Madrilen PPrekin aurrekontuak negoziatzen ari dela. Aurrekontuei onespenerekin AHT ekarri nahi dute. Pentsatzen dugu agian hau azkar joanen dela eta urte batean zerbait esanen dutela. Ministroak esan zuen urte bukaerarako proiektu hau ona edo txarra den jakinarazi nahi dutela.

Eta lanak hasteko datarik badute?

Zaila da esatea. Urte akaberan alegazioak erantzuten badituzte eta ingurumen baimena lortzen badu, hurrengo eraikuntza proiektuak egitea da, 2019an. Bi urte edo kostatuko litzateke. Hori ere azkartuko dute. Lanak hemendik bi urtera has daitezke.

+www.guaixe.eus

AHTren egitasmoari 2.852 alegazio aurkeztuta

Sustapen Ministerioaren proiektuaren kontra eta egungo trenbidea bikoiztu eta egokitzearen alde egin dute haiek sinatzen dituzten sakandarrek. Asteartean aurkeztu zituzten alegazioak eta proposatutakoa ez dela egokia berretsi zuten

SAKANA

Sakana Trenaren Alde taldeko eta Sustrai Erakuntza fundazio-ko kideak Espainiako Gobernuak Iruñean duen ordezkartzan izan ziren. Sustapen Ministerioak Nafarroako Abiadura Handiko Treneko (AHT) korridorea Euskal Y grekoarekin Sakanan barrena lotzeko proiektuari aurkeztu zituzten. Egitasmo horren kontrako 2.852 alegazio hain zuzen ere. Haietatik 119 Itza eta Oltzako zendeetan jasotakoak dira eta gainontzeko 2.733ak Sakanan. Aipatzekoa da sakandarrek sinatutako alegazioen % 29,3 arakildarrenak direla. Gasteizen ere pareko ekitaldia egin zen. Batzuen eta besteen artean 11.000 bat alegazio aurkeztu zituzten.

Arantza Iburgurenak eta Arturo Carreñok azaldu zuten, aurkeztutako alegazioetan egungo trenbidea egokitzearen aldeko apustua egiten da: "Europako estandarera moldatzea (trenbide bikoizta, hirugarren erraila, ibilbidea hobetzea...), bidaiarien eta merkantzien garraioari prestazio handiko erantzun egokia eman. Egungo ibilbidearen zatirik handiena bikoiztua izateko prest dago". Alternatiba hori "merkeagoa, ekologikoagoa, iraunkorragoa eta bateragarriagoa litzateke



Asteartean sinadurak ematen. UTZITAKOIA

Sakanako eta trena pasatzen den eskualdeetako herritarren bizi kalitatearekin eta haien beharrekina".

Ukatu egin zuten AHTk "interes soziala duenik eta ekonomia-garapenaren motorra denik". Estatuan eraikitzen ari den AHT eredu "erabateko porrota" dela dioten txosten "fidagarriak" aipatu zituzten. Ezartzen ari den eredu gizarte eta ekonomia aldetik errentagarria izateko distantzia ertaineko metropoli handien artean bakarrik dela gaztigatu zuten. Bestetik Renfe

eta Adifen zorra 18.000 milioi eurokoa dela nabarmendu zuten, kopuru horretatik 15.000 AHTri dagozkiola argitu zuten. "Alegazio kopurua ikusita, nabaria da herritarrek uste dutela AHT proiektu ha ez dela egokia ez gure eskualdearendako, ez Nafarroarendako ezta estatuarendako ere".

Alegazioak herrika

Arakil	801
Irañeta	51
Uharte Arakil	122
Arruazu	54
Lakuntza	210
Arbizu	116
Etxarri Aranatz	252
Bakaiku	131
Iturmendi	85
Urdiain	59
Altsasu	199
Olatzagutia	305
Ziordia	94
Erakundeek eta banakoek	254
Itzako zendea	111
Oltzako zendea	8
Guztira	2852

Basomutur jatetxeak bere bezero guztiei jakinarazi nahi die:

Martxoaren 12-tik aurrera asteburuetan soilik irekiko duela, ostiral eguerditik igande eguerdira arte, 16-17-18-ko asteburuak izan ezik, itxita egongo dela.



Horrela jardungo dugu erabateko itxiera izan arte uztaillaren 2an.

Ogiaren artisaubak

PORTUKO okindegia

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Auzolana bere osotasunean Amaraunan

Aman Komunak sarea Ziordiko Amarauna gune autogestionatuan bildu da asteburuan. Sarearen hirugarren bilera izan zen. Aurrekoetan bezala, lehenik auzolana egin zuten eta gero batzarraren txanda izan zen

Erkuden Ruiz Barroso ZIORDIA

Euskal Herrian autogestioa ardatz duten hamaika kolektibok Aman Komunak sarea sortu dute. Aman Komunak sarea “era asanblearioan eta autogestioa ardatz hartuta biltzen duen Euskal Herriko kolektiboak da”, sareko partaideen hitzetan. Lehenengo topaketa Errekaleorren egin zuten, bigarrena Tosun, eta hirugarrena Ziordian izan zen asteburuan, “Lurra eta As-katasuna” topaketetan.

ZADeko esperientziatik abiatuta Euskal Herrian autogestioa ardatz duten kolektiboak biltzea erabaki zuten. “Lehenengo urratsak” ematen ari dira: taldeari forma ematen, batzordeak osatzen eta sarea eraikitzen. Ziordikoa hirugarren topaketa handia zen, eta Sakanako herrian biltzearen saretik sortutako proposamen bat izan zen: “azpiegituren aldetik egokia da jende asko bildu daitekeelako, gainera hainbat behar genituen, auzolanarekin gainditu ditugunak”.

Auzolana da Aman Komunak sareko ildoetako bat. Teoriatik praktikara joan nahi dute, “ez dugu teorizatzen duen kolektibo bat izan nahi, horregatik gure topaketetan auzolana txertatzea ezinbestekoa ikusten dugu”. Topaketak egiten diren lekuetako kolektiboek sareko laguntza jasotzen dute haien proiektuak aurrera eramateko. Gainera, auzolanaren bitartez “hobe to ezagutzen dugu elkar, zerbait elkarbanatzen dugu. Konturatu gara nahiz eta hizkuntza desberdinak hitz egin, auzolanaren bitartez gure hartu emanak indartzen direla, hizkuntzaren gainetik”.

Asteburuako auzolana

Aman Komunak sareko topaketa larunbatean hasi zen auzolanarekin. Amarauna gune autogestionatuak zituen hainbat behar bete dituztela azaldu dute,



Asteburuan egindako lanetako bat kartela jartzea izan zen. UTZITAKOA

ERA ASANBLEARIOAN ANTOLATU ETA AUTOGESTIOA ARDATZ DUTEN KOLEKTIBOEN OSATZEN DUTE SAREA

kolektibo batentzat lan handia zena, berrogei bat pertsonen artean osatu dutelako. Egin diren lanen artean kanpoaldea txukundu, zuhaitzak kimatu eta udaberrirako prestatu izan da. Barrualdean, aldiz, kaperako zorua konpondu dute aldarearen zegoen lekuan porlana jarri, eta logelak antolatuta dituzte. Doako denda bat jarri dute ere, eta kutxetan zegoen arropa txukundu dute.

“Zaila izan da guretako, izanen ginenen aurreikuspenik ez gnuelako”. Berrogei pertsona bildu ziren auzolanean eta berrogeita hamar inguru igandean Amarauna gunean egin zuten asanbladan. “Lanak identifikatu genituen eta horren arabera taldeak egin genituen. Talde bakoitzean arduradun bat zegoen. Azkenean, patxadaz aritu gara lanean”.

Aurrera egiten

Ziordian egindako asanbladan erabaki zuten Aman Komunak sarearen hurrengo topaketa Añorgan izango dela, Belartzan. “Merkataritza gune erraldoi bat egin nahi dute. Eskualde hori nekazaritza gune bat da, baserriz inguratuta. Aman Komunak sarean parte hartzen duen kide bat bizi da han, eta bertan egoteko beharra ikusi dugu”. Hala ere, hainbat erronka gainditu beharko dituzte: “azpiegitura aldetik Ziordian izan duguna ez dut uste inon aurkituko dugunik”.

Aman Komunak sarea hasiberria den arren, aurrerapausoak ematen ari direla esan dute Sakanako parte-hartzaileek. “Batzordeak indartu dira, helburuak zehaztu dira eta aurrera begira egiteko lana badugu”. Lau batzorde sortu dituztela azaldu digute sareko kide sakandarrek: auzolana, komunikazioa, Euskal Herrian dauden proiektu autogestionatuak zehazteko mapa bat sortzea eta Aske guneen defentsarako batzordean, nahiz eta, “proposamen bat izan da, beharrezkoa ikusi dugu, baina hor geratu da”.



Jende asko elkartu zen Otsagiko plazan biraren 1. etapari.

Altsasuko auzia Nafarroan zabaltzeko biraren 2. etapa

Tafalla eta Lizarra artean ibiliko da Nafarroako Bira. Sakandarrak martxan parte hartzera gonbidatu dituzte

ALTSASU

Apirilaren 14an, larunbatean 17:30ean Iruñeko Golem zinematik abiatuko den manifestazioan parte hartzeko deia zabalduko dute martxako parte-hartzaileek. Gogoraraziko dute zortzi gazteak bi egun geroago epaituko dituztela, 16an. Eta 375 urteko espetxe zigorrari aurre egin beharko dietela. Ordurako Adurrek Jokinek eta Oihanek 518 egun preso emanen dituzte Madrilan, bakoitza espetxe desberdin batean. Haien bisitatze-erara joan-etorrietan familiek 237.200 km-tik gora egin dituzte jadanik. Horrek 57.500 eurotik gorako gastua ekarri die.

48 kultur, kirol, gastronomia, gizarte edota hezkuntza elkarteek eta taldek antolatuta dute #AltsasuMartxan bira. Joan den larunbatean “zortzi gazteek eta haien familiek pairatzen ari diren injustiziaren” berri Pirinioan eta Zangozaldean zabaldu zuten. Martxara joaten direnek hiru aldarrikapen zehatz zabalduko dituzte: justizia eskaera, gertatutakoa terrorismoa ez dela eta presoan askatasuna. Altsasuarrei eta sakandarrei martxan parte hartzeko gonbidapena luzatu diete.

Martxan parte hartu nahi duenak nork bere garraioa eraman beharko du. Hala ere, antolakuntzan dabilen altsasuarrek eskertuko lukete alde aurretik altsasumartxan@gmail.com e-posta helbidera mezua bidaltzea, zenbat pertsona eta zenbat autotan joanen diren zehaztea.

“Aldez aurretik komeni da jakitea zenbat jende eta kotxe mugituko garen”. Azkenik, martxoaren 10eko etapari Elizondon herri bazkaria izanen dela (15 euro) eta Beran herri afaria. Horietan izena emateko aipatu e-postara mezua bidali.

Egitaraua

- **08:30** Suhiltzaileen paretik abiatu.
- **09:30** Tafallan dianak.
- **10:00** Udaleko ordezkaria eta Gurasoak, erakusketa, musika eta dantzariak, Foru plazan.
- **11:00** Kalejira.
- **11:20** Autokarabana.
- **11:30** Garesen gaitariak.
- **11:45** Artaxoa.
- **12:05** Mendigorria.
- **12:15** Garesen ekitaldia.
- **12:30** Lizarran gaitariak.
- **13:00** Lizarran erakusketa.
- **13:05** Mañeru.
- **13:10** Zirauki.
- **13:20** Lorca.
- **13:25** Villatuerta.
- **13:30** Lizarrara iritsi.
- **13:45** Dantzariak Koronazio plazan, kalejiran Foru plazara.
- **14:15** Ekitaldia. Udal ordezkarien ongi etorria, Gurasoak, Trasteando eta Lizarrako musika talde bat. Bukatzeko pintxopotea.

"Legedi zehazgabearen adibide da Altsasukoa"

Amnesty Internationaleko (AI) ordezkariak Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordean egon ziren asteartean Altsasukoa auziaren inguruan duten iritzia ematen

ALTSASU

Erakundeko Espainiako buru Esteban Beltran giza eskubideek estatuan duen egoeraren berri eman zuen, erakundeak argitaratu duen urteko txostena baliatuz. Hura erreparatzean Altsasukoa auziari aipamena egin zion "lege zehaztu gabeen testuinguruan". Altsasukoa "ustezko delitu akto oso larri bat izan zen. Guardia Civilek eta euren bikoteek lesioak eragin zituen eraso bat jasan zuten. Gertatutakoa epaileek ikertzeko eskubidea dute. Biktimarik egon zenik ezin da ukatu". Horregatik, Alko buruaren ustez "agintariek haiendako egia, justizia eta erreparazioa bermatu behar dituzte."

Beltranendako Altsasukoa auzia "terrorismoaren kontrako legedi zehaztu gabearren adibidea da. Halakorik ezin da egon". Ondorioak laburtu zituen: "50 urteko zigorra ezarri ahal zaie eta batzuk 25 urteko espetxeal-



Alko buru Esteban Beltran azalpenak ematen. NAFARROAKO PARLAMENTUA

dia izan dezaketena". Hiru gazte preso daudela gogorarazi zuen. Halako legediak akusazio "guztiz neurrigabeak" ekarri dituela nabarmendu zuen.

Azkenik, Beltranek epai-prozedura aipatu zuen eta "bidezko

epaiketa" izenen ote den kezka azaldu du, "defentsaren proba asko atzera bota ditu auzitegiak, errugabe edo errudun diren epaitzeko eta zein legedi aplikatzen zaien zehazteko erabakigarriak izan daitezkeen probak".

Amnesty Internationaleko buruak gogorarazi zuen Europako Giza Eskubideen Epaitegiak epaiketetan "gertakari kalifikaziorako erabakigarriak diren probak baldin badaude, errugabetasun edo errudun izateko erabakigarriak diren probak badaude, tramitera onartuak izan behar dira". Horregatik, apirilean izanen den epaiketan defentsaren "proba guztiak bermatzea" espero duela esan zuen Beltranek, "bidezko epaiketa izan dadin".

Iritziak

Geroa Baiko Virginia Alemanek Altsasun gertatutakoa "konde-nagarria" zela gatzigatu zuen. Hala ere, "terrorismo auzietan proportzio eza" salatu zuen. Auzipetuekin hartutako erabakiak "neurrigabeak, anakronikoak eta auzipetuendako eta familiendako kaltegarriak dira". Alemanendako hartu diren erabakiak "terrorismo basakeriako urteen ondoren Nafarroan elkarbizitzan eta adiskidetzan egin behar den ahaleginean ez dute laguntzen".

EH Bilduko Bakartxo Ruizek "proba gehienak bazterrean utzi dizkietelako defentsak daukan defentsa falta" nabarmendu zuen. Hiru gazte behin behineko kartzelan 15 hilabete daramatzatela gogorarazi zuen. Zigor eskararak "neurrigabeak" direla esan zuen. Egoera "kezkaigarria" dela gaineratu zuen. **Ahal Dugu** tal-

deko Laura Perezek esan zuen Altsasukoa auzia estatuko justiziaren politizazioaren adibidea da.

I-Ek Jose Luis Nuinek azaldu zuen gauza bat dela "delitu akto bat ikertzea eta ardurak zehaztea. Eta beste gauza bat da terrorismo delituaren definizio hain zehaztu gabea, hain ambigua izatea kasu benetako atakeriak egiteko aukera ematen duena, kasu honetan gertatzen den moduan". Kezkagarritzat jo zuen defentsarako eskubidea errespetatua ez egotea.

UPNko Iñaki Iriartek azaldu zuen "botere legegileko kide izanik, zabaldutako kausa batean ez dugu iritzirik emanen, botere judizialean ez eragiteko". **PSNko** Inma Juriok esan zuenez, "epaia dagoenean ikusiko dugu bidezko epaiketa izan den. Hala ez bada, zerk egin duen horrela". Juriok galdetu zuen: "Espainiako sistema prozesalarekin, probak ez onartzeko erabakiaren kontra helegiteak aurkeztu direnean eta argudiatutako ebazpenen bidez erantzuten ari direnean, defentsarako eskubidea urratzen ari dela uste duzue?"

HALAKO LEGEDIAK AKUSAZIO "GUZTIZ NEURRIGABEAK" EKARRI DITUELA NABARMENDU ZUEN

#AltsasuMartxan, Nafarroako biraren lehen etapa egina

Harrera beroa jaso dute martxistek eta apirilaren 14ko Iruñeko manifestazioan parte hartzera deitu dute

ALTSASU

Larunbatean Altsasu utzita aurreneko geldialdia Zubiriko kiroldegian izan zen. Martxan parte hartzen ari ziren 30 bat pertsoneri harrera egin zieten beste horren bestek. Egunak aurrera egin ahala martxarekin bat egin zuten altsasuarrek kopuruak gora egin zuen. Gurasoek han zeuden hedabideei adierazpenak egin zieten. Esteribarko Ibarreko Juntak ibarra Altsasarekin dagoela dioen plaka eman zien gurasoei. Hurrengo geldialdia, Garralda. Aezkoako



Sinadurentzako mahaia jarri dituzte.

100 bat pertsona elkartu ziren eguerdian. Aureskua dantzatu zieten gurasoei. Etapako hirugarren geldialdia Otsagabian izan zen. 250 bat pertsona elkartu ziren. Ekitaldia eta bazkaria izan ziren. 17:00ak aldera iritsi zen martxa Irunberrira. Hitzaldien ondoren, musika izan zen protagonista.

Nafarroako Biraren aurreneko etapa Zangozan despeditu zuten. Kalejira egin zuten herraren kanpoko aldetik udaltxeraino. Haren azpiko aldean 400 bat pertsona elkartu ziren. Musika, dantza eta hitzaldiak izan ziren ekitaldiaren ardatza. Gurasoek haritz bat jaso zuten opari gisa. Ekitaldiaren ondoren hizketaldi animatuak izan ziren pintxo-potearekin batera. Martxistek une hunkigarri asko bizi zituzten geldialdi guztietan.

EROSKI bidaiak
Auzietan? Ezizu lagun!

Zubetzta, 1 (Altsasu)
948 564 335

Aste Santua
EROSKI BIDAIAKekin
Martxoaren 29tik apirilaren 2ra arte

Cambrils	busa + Voramar Apts mantenu osoan	345€
Peñiscola	busa + Peñiscola Palace Hotela mantenu osoan	360€
Oporto	bus zirkuitoa, bisitak barne	410€
Normandia	bus zirkuitoa, bisitak barne	425€

*Prezioa partsonako gela bikoitzean. Inuzurraren aurkako Lege berria betez, bulago honek 2.699 euroz gaineko salmentetan ez ditu eskudiritan ordaintzeko onartuko. Kudeaketa gastu 8€. Kontsultatu datak eta gainerako baldintzak. Plaza kopuru mugatua. ENK 618

berria *lagun* egin nahi duzu?

BERRIALagunak BERRIA proiektuari ekarpen ekonomikoa egiten dioten lagunak dira, edozein dela ere aukeratzen duten modalitatea.

Zure ohitura eta baliabideen arabera, aukeratu ondoen datorkizuna:

BERRIALaguna

Hilean 10€ edo urtean 100€

Abantailak:

- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eksklusiboak

BERRIALagun harpideduna*

Aukeratu harpidetza mota:

- Asteartetik igandera, hilean 36€
- Asteartetik ostiralera, hilean 23€
- Ostiraletik igandera, hilean 21,3€
- Asteburukoa, hilean 15€

Abantailak:

- Egunkaria etxean edo kioskoan
- BERRIA PDFn
- Irakurle gisa zerbitzu berezietarako sarbidea
- Zozketa, gonbidapen eta deskontu eksklusiboak



Euskarazko kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiten segitzeko, zure konpromisoa ezinbestekoa dugu.

Idatzi gurekin etorkizuna. Izan **berria laguna**
Berria.eus/geroazugan • 943-30 43 45



berria
#BERRIAk15

Altsasuko sexu-erasoagatik zigorra 6tik 4ra jaitsi dute

Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak bortxaketa beharrean sexu-abusua dela ebatzi du

ALTSASU

2016ko otsailaren 6ko goizaldean, kinto ospakizunetan, izandako sexu erasoagatik Nafarroako Lurralde Auzitegiako 1. epaitegiak J. C. R. altsasuarrari sexu erasoagatik, bortxaketagatik, 6 urteko espetxe zigorra ezarri zion. Helegitea jarri zuen eta Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenak atzo jakinarazi zuenez, gertatutakoa sexu abusutzat du eta ez bortxaketa gisa, "indarkeriarik eta beldurrarazterik izan ez zelako". Epaileek onartzen dute "biktimak ez zituela erlazioak onartu, akusatua batioak erasoagatik eta aurretik edandako alkoholagatik menperatua izan zen". Horregatik, gizonezko altsasuarrari espetxe zigorra 6tik 4ra jaitsi dio.

Hala ere, aurreko epaian ezarritako neurriei eusten die Nafarroako Justizia Auzitegi Go-



Erasoaren ondorengo protesta.

renak: zaindutako askatasunezko 5 urte, erasotutako emakumezkoari 25.000 euroko kalteordaina pagatzea eta haren-gandik 300 metro baino urrutiago 11 urtez egotera zigortu du, eta lesio arinak eragiteagatik 270 euroko isuna pagatzera zigortu du ere. Epaiari Espainiako Auzitegi Gorenean helegitea jartzeko aukera dago.

Askapenaren brigadek hiru helmuga dituzte aurten

Hego Amerikara, Ekialde Hurbilera eta Europara bidaliko ditu internazionalistak erakundeak

SAKANA

Askapena erakunde internazionalistak jakinarazi du aurtengo brigadetan izena emateko epea zabalik dagoela. Hala egin nahi duenak brigadak@askapena.eus e-postara idatzi dezake mezua. Aurten Hego Amerika, Ekialde Hurbila eta Europa izanen dira brigada internazionalisten helmuga.

Askapenaren azterketaren ondoren erabaki dituzte helmuga horiek; "munduko hegemonia hiru eremu geografiko nagusi horietan jokatzeko ari delako, eta herri langileen etorkizuna dago jokoan, borroka zinez interresgarriak egonik".

Brigadetan parte hartzea "joan-etorriko elkartzuna indartzea" dela gaztigitu dute Askapenatik. Eta zehaztu dute: "Askapenaren brigadetan ez goaz turismo politikoa egitera, ezta karitatez



Brigadetan egondakoak. UTZITAKOIA

lagundu edo irakaspen iraultzailek ematera. Herrion borrokan elkar-ezagutza bultzatzeko brigadak dira gureak, bultzatzerakoan, Euskal Herrian internazionalismoa eta gure askapen borroka elikatu ditza-

Asteburuan aurreneko Xabierraldia egingen da

Larunbatean asko Noain eta Zangoza artean ibiliko dira. Igandean, 10:00etan, da meza Xabierren

SAKANA

Kristau nafarren erromesaldirik handienak, Xabierraldiak iritsi dira. Xabierrera iristea, hori da kristauen helmuga. Lehenengo Xabierraldia asteburu honetan ospatuko da, eta, bigarrena, hurrengo asteburuan, martxoaren 10ean eta 11n.

Lehenengo Xabierraldian toki askotatik abiatuko dira erromesak, Sakana baita, baina ibiltari gehienek larunbat goizean Noaindik hartuko dute bidea, Zangozara iristeko. 17:00etan izango dute, Zangozan, ongi etorriko meza. Bertan gaua eman eta, hurrengo goizean, Xabierrera abiatuko dira. Goizeko 8:00etan abiatuko da gurutzebidea Zangozatik, eta goizeko 10:00etan hasiko da Xabierko gaztelu pareko zabalguneko meza erraldoia.

Iruñeko eta Tuterako artzapezpikutzak aurtengo 77. Xabierraldirako *Zeren bila zabilzate?* leloa aukeratu du. Bi berrikuntza izango dituzte aurtengo Xabierraldiek: 5 kubo erraldoi egingen dituzte, Xabierko Frantziskoren misioak eta nafar misiolarien irudiak eta testuak gizarteratzeko. Eta, bestetik, asteburu honetan burutuko den lehen Xabierraldian Lampedusako Gurutzeak hartuko du parte.

Grazia bederatziurren ospatzen da egunotan eta horren barruan kokatzen dira Xabierraldiak. Aipatu bi Xabierraldiez gain, eskualdekako erromesaldiak egiten dira Xabierrera. Horrela, martxoaren 6an, asteartean, mendialdetik, tartean Sakana, Xabierrera joko dute fededunek. Egun horretan meza elebiduna izaten da.

Aurreko urtean 15.000 pertsonak hartu zuten parte lehen Xabierraldian eta 20.000 pertsonak bigarrenean. 700 boluntario ariko dira lanean.



Altsasuko plaza batean haurrak jolasten. ARTXIBOIA

Udaberriko Aisiaz Blain parte hartu nahi duzu?

Izena ematea zabalik hurrengo ostiralera arte, doako 012 telefonora hots eginez edo www.altsasu.net-en

ALTSASU

Ate dago Aste Santua. Ikasleek oporrak hartu eta lana eta familia bizitza bateragarri egitea zail egiten da etxe batzuetan. Horregatik, Altsasuko Txantxari udal ludotekak, atzera ere, Aisiaz blai programa prestatu du Aste Santurako, apirilaren 3, 4, 5 eta 6erako, hain zuzen ere. Klaserik ez dagoen egun horietan Labadero eraikinean dagoen ludotekak atek zabalduko ditu 3 eta 12 urte artekoendako neska-mutilendako; 8:30etik 13:30era edo 11:00etatik 13:30era. Lehen ordutegia beteko ez balitz

bigarrena sortuko litzateke. Ludotekatik jakinarazi dutenez, plazak mugatuak dira.

Matrikulan pagatu beharrekoa familien diru sarreren arabera izanen da. Udalak lau errenta tarte zehaztu ditu, baita hobariak ere. Hilaren 13an jakinaraziko du udalak zein eskara onartu dituen, eta ezeztapen, erreklamazio edo dokumentazioa aurkezteko epea martxoaren 13tik 16koa izango da, ludotekan edo udal bulegoan. Izan ere, onartutakoren batek hobaria eskatu nahi badu, errenta aitorea aurkeztu beharko du.

Aurematrikula:
Martxoaren
1etik 15era

Matrikula:
Maiatzaren 21etik 25era

Arbizu eta Lakuntzako
udal haur eskola
Uhalde kalea z/g, 31839 Arbizu
948567009

www.kattuka.com
haur eskola

JARRI KOLOREA

NEGU TXURIARI



**ESKUORRIAK
KARTELAK
PEGATINAK
PUBLIZITATEA
LOGOAK
KAMISETAK**



948 564 275
Foru plaza, 23-1. Altsasu
gk@gkomunikazioa.eus
www.gkomunikazioa.eus



Binakakoan lehiatzen ari diren hiru pilotari sakandarrek lortu dute finalerdietarako sailkatzea. ASPE

Garaipenen sentsazio onekin finalerdietara

PILOTA Binakako hasierako ligaxkako azken jardunaldiko partidak irabazi zituzten Ezkurdiak eta Zabaletak eta Altunak eta Martijak. Etxeberriko pilotariak zauri txikia egin zuen besapean, baina finalerdietarako osatuko dela espero dute

Hasi da Binakako finalerdietarako atzerakontua Elezkano II.a-Rezusta, Altuna III.a-Martija, Olaizola II.a-Imaz eta Ezkurdi-Zabaleta bikoteendako. Binakako finalerdien lehen jardunaldia martxoaren 10 eta 11ko asteburuan jokatu da eta finalerdi ikusgarriak espero dira.

Ezkurdia eta Zabaleta, pozik

Joseba Ezkurdiak eta Jose Javier Zabaletak martxoaren 10ean Danel Elezkano eta Beñat Rezusta izango dituzte aurkari Labriten. Ligaxkako azken partidaren Laso eta Albisu 11 tantotan utzi zituzten eta garaipenaren sentsazio bikainarekin iritsiko da biko sakandarra finalerdietara. Sakandarrak oso kontentudate finalerdietara sailkatu izanagatik. "Gaizki hasi ginen, baina bigarren itzulian buelta eman genion. Beste hiru bikote finalistak sendoak dira, akats gutxi egiten dituzte. Gu, aldiz, akats gehienak egiten ditugun bikoak gara, baina euren mailan

jartzen saiatuko gara, ea aukerak ditugun. Dena den, finalerdiak hiru partidara dira eta edozer gauza gertatu daiteke; finean, lau bikoteek aukera berberak ditugu eta azken arte oso lehiatua egongo da gauza" azaldu du Jose Javier Zabaletak Diario de Noticiasen. Rezusta ere iritzi berekoa da, eta bera eta Elezkano faboritoak direnaren etiketa kendu nahi izan du.

Ezkurdiak eta Zabaletak 2015ean finalera sailkatzeke aukera emango zien partida galdu zuten Berasaluze II.aren eta Zubietaren kontra, eta arantza hori atera eta finalera sailkatzea "handia" litzateke sakandarrendako. "Finalera sailkatzeak poztasun handia emango liguke.

EZKURDIA ETA ZABALETA ETA ALTUNA ETA MARTIJA FINALERA SAILKATZEA EDERRA LITZATEKE

Ahal duguna emango dugu, ea lortzen dugun" gaineratu du Zabaletak.

Martijaren debuta

Txapelketa bikaina eginda iritsi dira finalerdietara Jokin Altuna eta Julen Martija. Ligaxkako azken partidaren Irribarriari eta Merino II.ari 22 eta 20 irabazi zieten, baina Etxeberrikoak, gaizki emandako pilotakada baten ondorioz, ezker besoko besaurrean zauriarekin despeditu zuen lehia. Finalerdiak hasi bitarteko atsedendian osatuko dela aurreikusen dute medikuek. Altunak eta Martijak Olaizola II.a eta Imaz izango dituzte aurkari martxoaren 11n, Atano III. ean. Partida lehiatua aurreikusen da hau baita ere. Julen Martijak aurten debutatu du Binakakoan eta lan bikaina egin du. Zabaletak "bikain" ikusi du bere laguna: "hasieratik partida onak egin ditu, akats gutxiarekin, oso erregular ibili da eta pilota ederki astindu du".



Aizkora gustuko duten neska-mutikoak trebatzen dira eskolan.

Sakanako Aizkora Eskolako 2018 denboraldia, hastear

AIZKORA Martxoaren 10ean hasi eta maiatzaren 12an despedituko da. Izena ematea zabalik dago Mank-en

Aizkora trebatu nahi duten sakandarrek aurten ere aukera badute, izan ere Sakanako Aizkora Eskola martxan hasiko da berehala. Sakanako Mankomunitateak antolatzen du eskola, Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Horrela, martxoaren 10etik maiatzaren 12ra, astero aizkora murgiltzeko aukera izango dute izena ematen dutenek. 10 eta 20 urte bitarteko neska-mutilei zuzendua dago Sakanako Aizkora Eskola, baina tokia egonez gero, helduagoak ere onartuko dira.

Etxarri Aranatzaren eskainiko da aizkora trebakuntza. Juanito, Juanjo eta Migel Angel Erdozia izango dira monitorea. Asteazkenetan, 19:30etik 20:30era, eta larunbatetan, 12:00etatik 13:00etara arituko dira aizkora-nondik norakoak azaltzen eta erakusten.

Harrobia sortu

Sakanako Aizkora Eskolaren helburua, aizkora hasi edo trebatu nahi dutenei kirol honetan murgiltzeko baliabideak ematea da. Izan ere, sarritan herri kirolean aritzea nahiko lukete askok, baina bertan aritzeko materialak eta baliabideak ez dituzte eskura. Gabezia horiei irtenbidea emateko sortu zuen Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, bere garaian, Sakanako Aizkora Eskola. Horrela, aizkora gustuko dutenei aizkora hasteko beharrezkoak diren baliabideak -aizkorak, entrenatzeko tokia, enborrak

eta beste- ematen zaizkie. Hasieratik arrakasta handia izan du eta urtero bertan aritzeko tokiak betetzen dira. Bestalde, Sakanako Aizkora Eskolarekin, aizkora bulkatzeaz gain, Sakanako aizkolarari harrobi on bat osatu nahi da. Asko dira bertatik atera diren aizkolaria, egun txapelketetan aritzen direnak.

Izena ematea zabalik, martxoaren 6a baino lehen

Mank-eko Kirol Zerbitzuan eman behar da izena (948 464 866, kirolak@sakana-mank.eus). Prezioa: 55 euro.

Gorriti txapeldunorde

Larunbatean 16. Malerrekako Pilota Txapelketa ezaguneko finalak jokatu ziren. Tartean, elite mailan, Jon Gorriti uhartearrak (Erreka) eta Arrietak (Hernani), Erreka klubeko Salaberria eta Mariezkurrena izan zituzten aurkari. Partida gogorrean, ongi ibili ziren bi bikoak, baina, azkenean, Salaberria eta Mariezkurrena gailendu ziren, 14 eta 22. Malerrekako txapeldunordea dugu, beraz, Jon Gorriti pilotari uhartearra.



Osasuna Magnako Javi Eseverri kapitainak jaso zuen saria. Aurten erretiroa hartuko du Otsagiko jokalaririk handiak. NAF. GOBERNUA

Osasuna Magnarendako talderik onenaren saria

ARETO FUTBOLA Nafarroako Gobernuak 2017ko Kirol Sariak eman zituen astelehenean eta Osasuna Magna Xotak kirol talderik onenaren saria jaso zuen. Aurten erretiroa hartuko duen Eseverri kapitainak hartu zuen saria

Astelehenean Baluarten burututako ekitaldi instituzionalean Nafarroako Gobernuak 2017ko Kirol Sariak banatu zituen. Tartean, Osasuna Magna Xota areto futbol taldeak gizonezkoen talde onenaren saria jaso zuen. Javi Eseverri kapitain handia igo zen oholtzara saria jasotzera. Uxue Barkos presidentek nabarmendu zuen talde berdeak "urtero lorpen berriekin hunkitzen gaituela" eta taldeak "bere ADN aldazina mantentzea" izugarri baloratu zuen. Imanol Arregi entrenatzaile irurtzundarrak zuzentzen duen taldea 5.a sailkatu zen 2016/2017 denboraldiko lehen mailako ligan eta Errege Kopako txapeladunor-

dea izan zen. Liga lortzeko play-offetan finalerdian erori zen Osasuna Magna. Aipatzekoa da ere Osasuna Magnako Daniel Saldise jokalaririk irurtzundarrak bi lagunarteko partida jokatu zituela Espainiako selekzioarekin, eta Bratislavako hiruko torneo.

Derbia berdeendako

Larunbatean Areto Futboleko Lehen Mailako derbia jokatu zuten, Tuteran, Aspil Vidal Rivera Navarrak eta Osasuna Magna Xotak. Partida hasi baino lehen, Aspil Vidalek Osasuna Magnako kapitain Javi Eseverri omendu zuen. Jakina denez, Otsagiko jokalaririk aurten

hartuko du erretiroa. Hasieran bi taldeak parez pare ibili ziren, baina Bynhok berdeen aldeko markagailua mustu zuen eta hortik aurrera hasi zen Osasuna Magnakoen gol festa. Bynho (4), Llamas, Eric Martel eta Roberto Martil izan ziren golegileak eta talde sakandarrak 1 eta 7 irabazi zuen. "0 eta 3 aurreratu eta gero, partida gurea izan da" nabarmendu zuen Imanol Arregik. Asier atezaina lesionatua zegoenez, Eduk debutatu egin zuen. Bikain aritu zen atezaina.

Movistar Inter da liderra (56 puntu) eta Osasuna Magna 4.a (46 puntu). Gaur sailkapenean 5.a den Jaen hartuko dute berdeek, 20:30ean, Anaitasunan.

SASKIBALOA CBASK-ek senior mailako lider jarraitzen du

Lidergoari eusteko partida erabakigarria zuen Gizonezkoen 1. Senior Autonomikoan dabilen Altsasuko CBASK taldeak larunbatean, CBSA El Navarriko taldearen kontra. Zelandin etxeko zaleen aldeko babesarekin jokatutako partidari, CBASK-ek ez zuen huts egin eta 69 eta 66 irabazi zion CBSA El Navarri-ori, lehia ikusgarri eta estuan. Horrela, Gizonezkoen 1. Senior Autonomikoko lider jarraitzen dute altsasuarrek (29+4), baina goiko postuetako aldea oso txikia da: bigarrenak, Liceo Monjardin taldeak 29+1 puntu ditu eta hirugarrenak, CB Valle de Egüesek, 28+4.

Hortaz, asteburu honetako jardunaldia ere erabakigarria izango da sailkapeneko goiko postuak zehazteko eta liga erabakitzeko play-offetarako sailkatzeko. Igandean Eskiroten jokatuko du CBASK-ek, Cendea de Galarren kontra, 12:00etan. Ea altsasuarrek puntuak pilatzen jarraitzen duten.

EMAKUMEEN ERREG.

EMAITZAK	
Berriozar – Altsasu	6-2

SAILKAPENA	
1. Berriozar	58
13. Altsasu	14

IGANDEAN	
13:15 Altsasu – Itaroa Huarte Dantzaleku	

Altsasuko emakumeek Berriozar liderraren kontra aritu ziren asteburuan. Berriozarrek zergatik den lider argi erakutsi zuen eta 6 eta 2 hartu zuen menpean Altsasu. Igandean bosgarrena den Itaroa hartuko du Altsasuko.

PREFERENTE MAILA

EMAITZAK	
Lagunak – Lagun Artea	2-0
San Andres – Etxarri Aranatz	1-1

SAILKAPENA	
1. Lagunak	39
12. Lagun Artea	21
14. Etxarri Aranatz	17

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
16:00 Lagun Artea – S. Andres Lakuntza	
16:30 Etxarri – San Jorge Etxarri Aranatz	

Lagunak liderrak eta Lagun Arteak jokatutako partida bikainean, Barañaingoek bi gol sartu zituzten eta punturik gabe itzuli ziren lakuntzarrek. Lizarran, Javierrek Etxarri aurreratu zuen baina berdindu egin zuen San Andresek. Baloia ez zen atera gehiago sartu.

ERREGIONAL MAILA

EMAITZAK	
Lekun – Altsasu	0-1

SAILKAPENA	
1. Pamplona B	36
5. Altsasu	32

PARTIDUAK	
IGANDEAN	
16:15 Altsasu – Amaia Dantzaleku	

Hasieran Altsasuk dominatu zuen baina Lekunek ongi defendatu zuen. 2. zatian Lizarragak defentsa gaituta eta Altsasuren aldeko gola sartu zuen.

ELOMENDIKO TXAPELK.

EMAITZAK	
Roca – Zaldua	1-2

SAILKAPENA	
1. Unziti	44
4. Zaldua	28

PARTIDUAK	
LARUNBATEAN	
Zehaztu gabe Zaldua – Izalsa Lekunberrin	

Zalduak laugarren postuari eusten dio.

Amaya
Okindegi-gozotegia

Lantegia: Teileria Aldapa S/N
Altsasu
948 562 205

BM-supermerkatua

Araia (Araba)
945 314 572

Olazti
948 468 755

Etxarri-Aranatz
948 461 660

San Juan kalea, 50
Altsasu
670 389 017

Otadiako Kristo
Deuna Plaza, 19
Altsasu
948 562 185

Zumalakarregi Plaza
Altsasu
T. 948 468 026



Iratu Irigoien, Espainiako junior mailako zilarrezko dominarekin, podiumean. BARGAGAIN

Iratu Irigoien, Espainiako junior txapelkunordea

TAEKWONDOA Junior mailako Espainiako Txapelketan zilarrezko domina lortu du urdiaindarrak eta aurten Turkian jokatu diren Mundialetarako sailkatzeko aukera du. Horretarako, Holandan taekwondo proba jokatu du hurrengo asteburuan

Asteburuan junior mailako Espainiako Taekwondo Txapelketa jokatu zen Kordoban. Altsasuko Bargagain taldeko Irati Irigoien urdiaindarrak sorpresa eman zuen eta bigarren sailkatu zen, puntuazio bikaina lortuz eta zilarrezko domina kolokan jantziz. Sekulako emaitza da hori Bargagain bezalako

klub txiki batendako. Baina kontua ez da hor bukatzen, Irati Irigoienek aurten jokatu diren Turkiako Taekwondo Mundialetan parte hartzeko aukera duelako. “Espainiako txapelketan urrea lortzen duena Mundialetarako sailkatzen da zuzenean. Eta Kordoban errusiar batek irabazi zuen, Anastasia

Ignatievak. Bera Valentziako selekzioarekin lehiatu zen, baina bere nazionalitatea errusiarra da eta, hortaz, ezingo luke Mundialetan Espainia ordezkatu. Horrela, zilarra –Iratu Irigoien–, eta brontzezkoa –Elena Torre– lortu zuten artean aukeratu beharko du federazioak, eta hori martxoaren bigarren

asteburuan Holandan jokatu den txapelketa batek erabakiko du” adierazi digu Bargagain Taekwondo taldeko presidente Beatriz Fernandezek.

Holandan erabakiko da

“Iratik mundialetarako sailkatzeko aukera izanen luke Holandan. Ez dago irabaztera derrigortuta, soilik puntuazio ona egitearekin, puntuak gaintzearrekin, nahikoa luke. Hori oso handia da berarendako eta baita gure klubarendako ere. Irati Irigoien eta Gerardo Montero irakaslea joango dira Holandara eta Bargagain klubaren izenean lehiatuko dira. Kontua da gure klubak ezin duela egonaldi hori bere osotasunean bere gain hartu. Horregatik, hainbat entitatearekin jarri gara harremanetan –Altsasuko Udala, Sakanako Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua...– diru-laguntza eskatzeko” nabarmendu du Fernandezek, edozein laguntza “oso ongi etorria” litzatekeela gaineratuz.

“Honek guztiak sorpresaz hartu gaitu. Iratik Espainiako Txapelketetan lan ona egingo zuela jakitun ginen, baina zilarrezkoa lortuko zuela ez genuen espero. Gainezka gaude, baina oso kontentu. Eta Iratik errekonozimendu hori merezi du, izugarri lan egiten duelako eta neska bikaina delako” nabarmendu du Fernandezek. Bargagain klubeko presidenteak azpimarratu du

azkeneko emaitzek Bargagain kluba “bide onetik” doala erakusten dutela. “Azken urtetan lan asko egin dugu. Gerardo Montero Rivera irakaslearekin oso gustura daude gure neskautilak eta taldekide guztiak, eta emaitzak primerakoak dira, bai txapelketetan, eta baita maila pertsonalean ere. Izan ere, guztien arteko harremana oso estua da; ia familia bat osatzen dugu. Aste Santuan ere, aurreko urtean bezala, taekwondo egonaldia antolatuta dugu Lekarozen eta bertara joateko irrikiz daude taldekideak” aipatu du.

Kluba, goraka

Taekwondo mundu bat da, bizitzeko modu bat. Borroka baino askoz ere gehiago da. Gai nontzekoekiko errespetua sustatzen duen arte martziala da. Psikomotritzitatea, diziplina, errespetua, autonomia, osasuna... horren garrantzitsuak diren baloreak lantzen ditu. Altsasuko Bargagain taekwondo taldean aurten 80 pertsona inguru trebatzen ari dira, helduen taldea eta eskola kontuan hartuta.

Iratu Irigoieni 11 Galderak egin dizkiogu (ikus 24. orr).

IRIGOIEN HOLLANDAKO TXAPELKETAN ARITZEKO LAGUNTZA ESKATZEN ARI DA BARGAGAIN KLUBA

Goikoetxea eta Armendariz Nafarroako txapelkunak

MENDI ESKIA Juanjo Goikoetxea uhartearra denboraldi bikaina osatzen ari da mendiko eskian

Otsailaren 25ean Nafarroako Mendi Eski Txapelketa erabaki zen, Linzan binaka jokatu VI. Pyrene Goi Mendi Ibilaldian. Nafarroako Txapelketan, Juanjo Goikoetxea eta Imanol Armendariz izan ziren lehenak, Izaskun Zubizarreta eta Fermin Iarregi bigarrenak eta Adrian Legarra eta Joseba San Román hirugarrenak. Ibai Goñi eta Fidel Jimenez laugarrenak sailkatu ziren.

Juanjo Goikoetxea laugarrena Bandres-Karolo Oroimenean

Otsailaren 17an eta 18an jokatu zen mendiko eskiko Bandres-Karolo Oroimenezkoa, Izaban. Larunbatean, guztira 150 eskia-tzaile kronoigoeran lehiatu ziren. Ibilbideak 4,5 km eta 800 m-ko desnibela zuen. Iñigo Lariz (38:58) eta Maite Maiora (45:33) izan ziren azkarrenak. Sakandarrei dagokienez, Juanjo Goikoetxea 7.a sailkatu zen (41:44), Patxi Rubio 42.a (48:59), Jose Antonio Salgado 124.a (1:08:01) eta Mikel Rubio 131.a (1:10:25).

Hurrengo egunean banakako proba jokatu zen, Keleta, Kor-



Juanjo Goikoetxea eta Imanol Armendariz, podiumaren gorenean. NAF. MENDI FEDERAZIOA

taplana eta Lakhura mendi-guneetatik barna. Eguraldia lagun izan zuten eskia-tzaileek eta proba ederra jokatu zuten. Roncaliako eski pistetako helmugan Iñigo Lariz izan zen azkarrena, bi ordu t'erdia luze eskiatzen eta

korrikari eman eta gero (2:33:44). Emakumezkoetan Laura Solak irabazi zuen (3:03:00). Juanjo Goikoetxea ikusgarri aritu zen eta laugarrena sartu zen (2:39:34) eta Patxi Rubio 25. postuan sartu zen (3:06:38).

TXIRRINDULARITZA

Burunda klubaren aurkezpena bihar

Burunda Txirrindularitza Kluba 2018 denboraldiko taldeen aurkezpena egingen du bihar, martxoaren 3an, larunbatean, Altsasun.

Lehenik eta behin, goizeko 11:00etan txirrindularitza taldeen argazkiak aterako dituzte Iortia Kultur Guneko kanpoaldean. Eta, ondoren, 11:30ean, urte honetako asmo eta helburuen berri emanen dute Iortia Kultur Gune barruan egingo duten ekitaldian. Jakina, txirrindulariak bana bana aurkeztuko dituzte eta hasi berria den denboraldian antolatuko dituzten lasterketen berri ere emango du Burundako txirrindularitza taldeak Iortian.



Antsoainen eta Zaragozan maila bikaina eman zuten gure irristalariak. SAKANA PATIN

Nafarroako Pista Txapelketari ekingo diote gure irristalariak

IRRISTAKETA Sakana Patinekoak kimuen eta haurren mailan lehiatuko dira eta gainontzekoak helduagoetan

Asteburu honetan, martxoaren 3an eta 4an, Nafarroako Irristaketa Pista Txapelketa jokatu da Txantreako patinodromoan, eta kategoria bakoitzeko lehen 10 sailkatuek irailaren 15ean eta 16an Zaragozan jokatu diren Espainiako Irristaketa Pista txapelketan aritzeko txartela lortuko dute. Sakana Patin Irristaketa Taldetik adierazi digutenez, euren irristalariak kimuen eta haurren mailan lehiatuko dira.

Horrela, kimuen emakumezkoetan, Sakana Patin taldeko Anne Arregi, Enara Arregi, Iratxe Lapuente, Maialen Pain, Intza Unamuno eta Eukene Vazquez ariko dira, eta kimuen gizonetzkoetan Oier Ormazabal eta Iker Gómez. Bestetik, haurren mailan, emakumezkoetan Maddi Goyak eta Mara Gomezek hartuko dute parte eta gizonetzkoetan Yerai Goikoetxeak.

Beste talde batzuetan dabiltzan sakandarrei dagokienez, jubilenen mailan Lagunak taldean dabiltzan Ana Rita Correia, Anne Lapuente eta Unai Villalobos lehiatuko dira eta Amaya taldean dabilen Unai Baztan. Eta seniorretan, San Juan taldean dabilen Kevin Marques altsasuarra.

Bestalde, aipatzekoa da aurreko asteburuan Kluben Arteko Irristaketa Liga Nazionala hasi zela, Iruñean. Larunbatean Barañainen jokatu ziren probak, Lagunak klubeko pistan, eta igandean indoorreko probak jokatu ziren, San Juan klubaren instalazioetan.

Sakandarrak primeran Antsoainen eta Zangozan

Otsailaren 11n Nafarroako Abiadura Irristaketa Indoor Txapelketako III. jardunaldia jokatu zen Antsoainen eta otsailaren 17an IV. jardunaldia, Zangozan. Ongi ibili ziren gureak. Antsoainen, aurrebenjaminen mailan Enara Perez Barrenetxea olaztiarra bigarrena sailkatu zen eta benjaminen mailan Eneko Pinto Vicente bigarrena. Eta Zangozan sari gehiago pilatu zituzten Sakana Patin Irristaketa Taldekoek. Aurrebenjaminen mailan Eneko Igoa Aboitiz etxarriarra hirugarrena sailkatu zen eta kimuen mailan bi txapelketa irabazi zituzten gure neska-mutikoeak. Emakumezkoetan Iratxe Lapuente Perez ziordiarra izan zen txapelduna eta gizonetzkoetan Iker Gomez Lopez de Goikoetxea. Oier Ormazabal Ijorra bigarrena sailkatu zen.

Villalobos eta Lapuente Garikoitz Lerga selekzionatzailearekin

Otsailaren 3an eta 4an, Xixonen, eta otsailaren 10ean eta 11n, Iruñean, irristaketa teknifikazio nazionalaren jarraipena egin zuten Garikoitz Lerga Espainiako irristaketa selekzionatzaileak. Xixoneko topaketan Lagunak taldean dabilen Unai Villalobos Hernaz altsasuarra parte hartu zuen, eta Iruñeko probetan, aldiz, talde berean dabilen Anne Lapuente Perez ziordiarra. Unai Villalobos ez zen Iruñan egon, lesioagatik.

Andra Mari ikastola, profeta bere etxean

HERRI KIROLAK Nafarroako Herri Kirol Jokoen lehen jardunaldiko herri kirol proba konbinatu guztietan nagusitu zen Etxarri Aranazko ikastola. Igandean bigarren jardunaldia jokatuko da, goizeko 11:00etan hasita, Betelun

Igandean hasi ziren 2018ko Nafarroako Kirol Jokoa, Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolan.

Herri kirolean Andra Mari nagusi

Herri kirol proba konbinatuetan etxeko taldeak, Andra Mari ikastolakoak, izan ziren jaun eta jabe. Kimuen mailako proba konbinatuan 17 talde lehiatu ziren, 5 txandatan. Andra Mari 5 izan zen txapelduna (6:58). Andra Mari 7 3.a sailkatu zen (7:11), Iñigo Aritzako Gainsol 7.a (7:23), Andra Mari 3 8.a (7:25), Andra Mari 2 9.a (7:26), Andra Mari 4 10.a (7:30), Andra Mari 6 11.a (7:31), Andra Mari 1 12.a (7:32), Iñigo Aritzako Intsusburu 14.a (7:35) eta Iñigo Aritzako Bargagain 16.a (7:43).

Haurren mailako proba konbinatuan 13 taldek jokatu zuten, 4 multzotan. Andra Mari 3 talderik azkarrena izan zen (9:19), Andra Mari 2 6.a (10:30), Iñigo Aritzako 8.a (11:21) eta Andra Mari 1 9.a (11:30). Eta kadeteen mailako proba konbinatuan Andra Mari izan zen onena (4 puntu) eta Iñigo Aritzako 3.a (2 puntu).

Sokatira

Sokatiran, ordea, gauzak aldatu ziren. Haurren mailan (480 kg) 12 talde lehiatu ziren 3 multzotan. A multzoan Berriozar A izan zen finena (4 puntu), Iñigo Aritzako bigarrena (3 puntu) eta Andra Mari 2 hirugarrena (2 puntu); B multzoan Andra Mari 3 nagusitu zen (4 puntu), Andra Mari 4-ren aurretik (3 puntu) eta C taldean Basaburuua izan zen onena (4 puntu) eta Andra Mari 1 hirugarrena (2 puntu). Eta kadete mailan (540 kg) Basaburuak eta Andra Mari 1 taldeek berdindu zuten (4,5 puntu), Iñigo Aritzako 3.a sailkatu zen (3 puntu) eta Andra Mari 2 5.a (puntu 1). Igandean bigarren jardunaldia jokatuko da, 11:00etan, Betelun.



Iñigo Aritzako ikastolako taldekide bat, konbinatuen korrikako proban.

Herri kirolari ugari Nafarroako Kirol Jokoen Nafarroako 11 klub edo taldeetako makina bat talde lehiatu ziren.



Haurren eta kadeteen mailan trontzalariak lanean ibili ziren.

Emozio handia Klub bakoitzak bere taldekideak gogo biziz animatu zituen eta primerako giroa egon zen Etxarri.



Iñigo Aritzako eta Andra Mariko taldeak, sokatira lehia bizian.

Tiraldi ederrak Proba konbinatuen ondoren, sokatira hasi zen. Tiraldi lehiatuak eskaini zituzten sokatiratzailleak.

Eman izena Altsasuko eta Arbizuko Duatloietan

DUATLOIA Martxoaren 17an eta martxoaren 24an jokatu dira aipatu probak eta www.navarratriatlon.com web gunean eman daiteke izena. Aurrerago, apirilaren 21erako, BIZI Mendi Duatloia antolatu du Nafarroa Oinezek Altsasun

Martxoan burutuko dira Sakana bi duatloi proba ezagun: Altsasuko Duatloia eta Arbizuko Duatloia. Bi probetarako izena ematea zabalik dago www.navarratriatlon.com web orrian.

Altsasu: NKJ eta helduak

Martxoaren 17an jokatu da Sakana Triatloi Taldeak antolatutako VII. Altsasuko Duatloia. Goizean, 10:30ean, haur eta gazteen Altsasuko Duatloia jokatu da, Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria, aurre benjaminetik hasita haurren mailara bitartean. Aldiz, kadeteek eta juniorrek helduen proban jokatu dute.

Proba nagusian, arratsaldez, 5 km korrikan, 22 km bizikletan eta 2,5 km korrikan egin behar dituzte parte-hartzaileek. Emakumezkoak 15:45ean abiatuko dira eta gizonezkoak, aldiz, 16:00etan. Izena ematea zabalik dago martxoaren 12ko 23:59ak arte. Federatuek 22 euro eta



Duatloiak ate joka ditugu gurean.

federatu gabekoez 26 euro ordaindu beharko dituzte. Kategoriatxikikoek, haurren kategoriaraino, hau barne, ez dute ordaindu behar izango. Txip horia ez dutenek, alokatu beharko dute.

XXII. Arbizuko Duatloia

Arbizuko Duatloi beteroaren 22. edizioa jokatu da aurten, martxoaren 24an. 15:30ean emakumezkoen proba hasiko da eta 15:35ean, aldiz, gizonezkoena. Hainbat aukera daude: betiko ibilbidea (8 km korrikan, 32 km bizikletan eta 4 km korrikan), Ibilbide herrikoa, gazteen kategoriatxikiko eta paratriatletak (betiko ibilbidearen erdia) eta erreleboak bikoteka (8 km-32 km-4 km). Izena ematea zabalik dago martxoaren 19ra arte.

Apirilaren 21ean BIZI Mendi Duatloia Altsasun

Aurten Nafarroa Oinez prestatu duen Iñigo Aritza ikastolak BIZI Mendi Duatloia antolatu du apirilaren 21erako Altsasun. Bikoteka parte hartuko da. Lehena 23 km osatu beharko dituzte bizikletan eta besteak 8 km korrikan. Izena ematea zabalik dago www.kirolprobak.com-en.



Iturmendiko txirrindulariak hasiera bikaina eman dio denboraldiari. MARTIN EARLY

Josu Etxeberria: 2018ko lehen lasterketan lehen garaipena

TXIRRINDULARITZA Aralar Klubeko Josu Etxeberriak junior mailako Villatuertako Lasterketa irabazi du

Junior mailako txirrindulariek igandean hasi zuten denboraldia, Villatuertako XXXX. San Veremundo Zirkuituan (73 km). Aralar Klubeko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria iturmendiarrak ezin hobe mustu du denboraldia, garaipen polita lortu baitzuen (1:55:33), helmugara bakarrik helduta. 45 segundura sartu zen lehen tropela, 12. postuan bere taldekide Beñat Etxezarreta zela. Burundako Quesos Albeniz taldeko Ailetz Lasa 24.a sartu zen, Imanol Galarza 32.a (I.I.), Javier Mitxaus (I.I.) 37.a, Urko Gorriti (I.I.) 38.a,

Mateo Gonzalez (Q.A.) 39.a, Andoni Urria (I.I.) 42.a, Diego Gonzalez (Q.A.) 43.a, Inhar Astiz (I.I.) 49.a Xabier Mauleon (I.I.) 54.a Iker Cerviño (I.I.) 58.a. Bestalde, El Caserio Valsay taldean dabilen Jon Gil lakuntzarra 36.a iritsi zen helmugara.

Afizionatuak martxan

Afizionatuen 2018ko denboraldia asteburuan hasi zen, Zumaian jokatuak Euskaldun Torneoeko probarekin. Eibar Energia Hiriko Onditx Urruzmendik irabazi zuen, Rural Kutxako Jose Daniel Viejoren aurretik.

Aritz Munarriz zortzigarrena Zumarragako UZ Trailean

MENDI LASTERKETAK UZ Traileko ibilbide motzean Jabi Gasanz zortzigarrena sailkatu zen

Igandean UZ Traila jokatu zen Zumarragan, 22 km-ko mendi lasterketa. 135 korrikalari sailkatu ziren, Ander Iñarra irundarra (1:43:36) eta Laida Elizegi zaldibiarra (2:14:07) buru zirela. Aritz Munarriz etxarriarrak denboraldiari hasiera eman zion eta zortzigarrena sailkatu zen (1:54:10). Bestalde, UZ Trail proba laburrean (11 km) 100 korrikalari aritu ziren eta Iñaki Goenagak (58:22) eta Ainhoa Unanuek (1:21:59) irabazi zuten (58:12). Jabi Gasanz altsasuarra 8.a iritsi zen helmugara (1:03:50)

eta Ainhoa Markinez olaztiarra 81.a (1:36:58).

Sakandarrak Aiako Mendi lasterketan

Igandean VII. Aiako Mendi Lasterketa jokatu zen, 15 km-ko lasterketa. 176 korrikalarik hartu zuten parte eta Walther Berra sestaoarra (1:07:33) eta Oihana Azkorbeitia abadiñarra (1:20:29) izan ziren txapeldun handiak. Aitor Hernaiz lakuntzarra 20.a sailkatu zen (1:22:36) eta Ruben Cantero altsasuarra 110.a (1:44:31).

Sakandarrak UZ Trailean

Gureak ongi ibili ziren.

22 Km

1. Ander Iñarra (Irun): 1:43:36
8. Aritz Munarriz (Etx): 1:54:10
55. Xuban Mendiola (Etx):

2:15:03

85. Ibon Ubeda (Etx): 2:26:02

95. Arkaitz Munarriz (Etx): 2:29:42

107. Iban Berdugo (Etx): 2:33:31

11 Km

1. Iñaki Goenaga (Soraluze): 58:22

8. Jabi Gasanz (Alts): 1:03:50

24. Fran Araña (Arb): 1:10:10

81. Ainhoa Markinez (Olaz):

1:36:58

Kluben arteko gimnasia erakustaldia bihar Olaztin

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskiza Sakana, Sutegi, Arrotxapea, Agurain eta Araia klubetako 100 gimnastak ariko dira

Olaztik gimnasia erritmikoko erakustaldia hartuko du bihar, larunbatean, goizeko 10:30etik aurrera, Erburua kiroldegian. Iskiza Sakana, Sutegi, Arrotxapea, Agurain eta Araia klubetako gimnastak izanen dira erakustaldian parte hartuko dutenak, 100 gimnasta guztira.

Iskizako Olaia Agirrek azaldu duenez, lauzpabost urte izango dituzte gimnastarik gazteenak eta 16-17 urte nagusienak. "Denetariko koreografiak ikusteko aukera izango dugu. Gimnastak banaka eta taldeka ariko dira,

eta aparatu guztiak erabiliko dituzte. Ikuskizun polita izango da". Martxoaren 17an Nafarroako Banakako Gimnasia Erritmikoko Txapelketako lehendabiziko jardunaldia jokatu da Mendillorri, eta biharko Olaztik erakustaldia entrenamendu bikaina izango da txapelketarako. Egun Sakana Iskiza taldean 45 gimnasta inguru trebatzen dira, 20 eskola taldean eta 25 txapelketen taldean. Olaia Agirre, Cristina Nuncio, Maria Remolina, Ainhoa Imaz eta Olaia Granizo dira monitorea.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 2

ALTSASU Pentsio duinak, kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

LAKUNTZA Origami, papiroflexia ikastaroa.
17:30ean, liburutegian.

ALTSASU Top chef ostiralak.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunea.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7. zenbakiaren parean.

IRURTZUN Pecadoras antzezlan, Detritus antzerki taldearena.
20:00etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ETXARRI ARANATZ Koaderno zuria antzezlan eskainiko du Hika teatroak.
22:00etan, kultur etxean.

ALTSASU C'est la vie! filmaren emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 3

ALTSASU Altsasu eta Larraintzar arteko 115 km-ko joan-etorria eginen dute Barranka Txirrindulari Taldeko errepede atalekoak.

9:30ean, San Juan plazatik.

ALTSASU Egun guztiak dira martxoak 8.
18:00etan, Intxostiapuntan.

LAKUNTZA Rakugoa, Japoniako ipuin-kontaketa tradizionala. Azpeitiko rakugo taldea.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Hazi eta hezi musikaz. Haize Berriak banda eta Sakanako musika eskoletako ikasleen kontzertua.
19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 4

ALTSASU Irtzako bordetara 49 km-ko joan-etorria eginen du Barranka txirrindulari klubeko mendi-bizikleta taldeak.
08:30ean, klubeko bajeatiko edo 09:10ean Urbasako portuan.

ALTSASU Yo kai watch filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU El invierno filmaren emanaldia.
17:30ean eta 19:40ean, lortia kultur gunean.

ALTSASU C'est la vie! filmaren emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 5

IRURTZUN Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesen tailerra.
17:00etan, udaletxe bilkura gelan.

ASTEAZKENA 7

ALTSASU Dolu aurreratua dementzietan: ezezagun handi hori. Afan elkartearen tailerra.
15:30etik 17:00etara, Josefina Arregi klinikan.

IRURTZUN Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesen tailerra.
17:00etan, udaletxe bilkura gelan.

OSTEGUNA 8

SAKANA Emakumeen Egunaren inguruan antolatutako deialdien berri 4 eta 5 orrietan.

ALTSASU Me estás matando Susana filmaren emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.



ZORION AGURRAK



Adei
Jada bost urte maitia! Segi bizi poza horrekin ta muxu gehio banatu! ZORIONAK familia guzian partetik!!



Adei
ZORIONAK itiki!! Lizerrako pilotaririk azkarrena, ia nolako tarta iten duzun! Muxu pila, pila, patata tortila Aitor eta Haizean partetik.



Enara eta Nahia
Zorionak Enara eta Nahia Berasategi Lakuntza!!!! Zorionsuak izatea zuen seigarren urtebetetzeko egunean!!!! Zuen familiaren partez.



Oihan
Urte askuen "Txato"! Besarkada senduak hi launen partez... Boltio, Luis, hi ta gainontzeko guziek etxeratu artio ez yau amoreik emanko! Eutsi!!



ALTSASU Etorkizuna dantza eskolaren 25. urteurren erakusketa.
Martxoaren 11ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 17:30etik 21:00etara, lortia kultur gunean.



LAKUNTZA Alvaro Mundiñanoren Barne barnetik margo erakusketa.
Gaurtik, martxoaren 11ra arte, 17:00etatik 20:00etara, Lakuntzako kultur etxean. Gaur, 19:00etan, mustutzea eta auzatea.



ARBIZU Herriko emakumezkoen sormen lanen erakusketa.
Martxoaren 7tik 14ra, astegunetan 16:30etik 20:00etara, udaletxe batzar aretoan.



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROAK

Estresa jasaten ikastea tutoriala. Cedema Garalur, Arbuzun. Martxoaren 6an, asteartea, 10:00-12:00. Bultzatzaile, PYME eta autonomoentzat. Izen-ematea 619 328 264 eta sakana.admon@cedema.es

Elikadura eta ariketa fisikoa 2. motako diabetesean. Irurtzungo udallexean, Osoko bilkuren aretoan. Martxoaren 5ean, 7an, 13an eta 14an, 17:00-19:00. Aurretik izena eman behar da 848 42 34 50 telefonora deituz 8:00etatik 15:00ak arte edo www.escueladepacientes.navarra.es webgunean. Doan eta erdaraz dira.

OHARRAK

Sakana Trenaren alde. Taldea astelehenero, 19:00etan, elkartzen da. Behin behineko biltokia LABek Altsasun duen egoitzan da, han egiten dira bilerak.

Odol-emaileak. Altsasu: Otsailaren 27an eta 28an, 17:00-20:30. Martxoaren 1ean, 17:00-20:30; martxoaren 2an, 9:30-13:00.

Etxarriko irakurle taldea. Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegiren, Elsa Sheelen (1969 Lur) liburuarri buruz hizketazera elkartuko da udal liburategian martxoaren 15ean, ostegunean, 19:00etan.

Otdiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokian edo herriko banku eta kutxetan

zabaldutako kontuetan sartu daitezke.

Enplegaritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakana Enpresariari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Haremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikak) edo 689 03 51 02 (Pabxi) telefonoetara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diruzorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Eurritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, esku-muturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon la-

guntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cedema.es edo sakana.admon@cedema.es

GoiEner Irurtean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errobapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenean, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa jasotzera, zalantzak argituzera, ekarpenak egitera...


Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

Gazteei jarritako isunak ordaintzeko. Euskal preso eta inehariak aldeko abenduaren 30eko ekimenean parte hartu zuten gazte sakandarrek 6000 euroko isuna jaso dute. Mozal legegaren aplikazio horri elkartasunetik erantzun kolektiboa emateko dinamika martxan jarri dute gazteek. Diru ekarpenak egiteko kontu korrontea zabaldu dute. ES67 3008 0014 2133 8075 1119


www.iragarkilaburak.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 2



Larunbata, 3



Igandea, 4



Astelehena, 5



URTEURRENA

Gorka Larrea Ondarra

VI. urteurrena


Arbizu-Bakaiku martxoaren 3an

Erraza izan zen zu maitatzea ezinezkoa, ordea, zu ahaztea, beti gurekin eramango zaitugu.

Amiña Katalina, izeba Pilar, Irene, Koldo, Oihane eta Maitane



URTEURRENA



Gorka Larrea Ondarra

VI. urteurrena

Lehendabiziko egunean bezainbeste oroitzen zaitugu, maite zaitugu.

Zure familia

URTEURRENA

Gorka Larrea Ondarra

VI. urteurrena

Bakaikun, martxoak 3an

Sasien gainetik, hodeien azpitik, gure bihotzean beti.

Zure lagunak



URTEURRENA

Joxinazio Gurutxarri Lakuntza

V. urteurrena

Zein lixto fan zinen, aitatxo... Daanekos bost urte zupai. Bea urteik fan ahala, aldatzen ez dan zerbett bada: zue hitzek, aholkubek, sentimentubek... gukin bizi dila. Asko maite zeittugu.

Etxekuek



JAIOTZAK

- **Christian Sanchez Enache**, abenduaren 27an Ziordian
- **Iargi Leza Vera**, otsailaren 17an Altsasun
- **Noa Oraa Gonzalo**, otsailaren 18an Altsasun
- **Urki Miguel Sarasola**, otsailaren 23an Altsasun

HERIOTZAK

- **Eugenia Goikoetxea Galarza**, otsailaren 22an Urdiainen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA..



40 tanatorios
IRACHE
aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
 @Grupolrache
 f Grupolrache
 www.tanatoriosirache.es

Bi ahizpen emozio bidaia Etxarriko kultur etxean

Hika teatroak "Koaderno zuria" antzezlanaren taularatuko du gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. Ama "itogarri" batek bi alabengan utzitako arrastoa azaleratuko da hura hil eta ahizpak 20 urte banatuta egon ondoren

ETXARRI ARANATZ

Ama hilda egon arren, Begoñaren eta Arraterengan arrasto sakon eta hautsi ezin utzi ditu. Etxeko andre gogor eta zirikatzailea, tradizioaren defendatzaile itsua eta elizkoi amorratua zen. Berak sentimenduak azaltzeari ahuldadea deitzen diona, eta gizartearen aurrean beti tente, garbi eta ohoretsu agertzea, zoriontsu izatea baino garrantzitsuagoa irizten zion.

Begoñak amari aurre egin eta Afrikara alde egitea erabakiko du. Arratek, berriz, obediencia-rena, amaren maitasuna eskuratzeke. 20 urteren ondoren elkartu dira. Ama hilda dago

baina haren arrastoa ezin borratu dabilta.

Begoñak Afrikako egonaldian koaderno zuri batean idatzi zuen arindua eman zion. Arrate, mediku familia, ezkondua eta bi alaben ama, bizitza konbentzionalagoa izan du. Bi hamar-kadaren ondoren, ahizpak elkarri kontu eske hasiko zaizkio. Ezer gutxi dakite amak batengan eta bestearengan utzitako arrastoez. Nahikoa lan izan du baikoitzak bere bizitza eraikitzen. Bi ahizpen arteko talka horretan "emozioen bidaia" sortuko da. Minaren poetika taula gainean. Eta umorea, egoera tragikoak barregarri bihurtzen duena.



Kuaderno zuria antzezlanaren taularatuko du gaur, 22:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean. KOADERNO ZURIA

Lau mikro antzerki "garratz eta probokatzaile" Irurtzunen

Detritus Teatrusek "Pecadoras" antzezlanaren taularatuko du gaur, 20:00etan, Irurtzungo kultur etxean

IRURTZUN

Belen Nevado aktoreak lau mikro-antzerki obra jokatu ditu gaur eta Irurtzungo publikoak "beste batek akuilatuta, hiru emakumezkoen liberazioaren uneari lekuko izanen dira".

Hasteko, *Confieso que he fingido* obran Batetu sexu psikoterapeutak bere kontsultan orgasmoen planta ez egiteko baliabide hutsezina emanen du. Bigarren, *Dejadme sola...!* ikusleek bakardade uneak bizitzeko aukeren bila dabilen etxe-koandre baten ibilerak ezagutuko dituzte.

Hirugarren mikro-antzerkian, *Hola, mundo cruel*, lehen begi-kolpean maitemindu eta amodio erromantikoaren tranpa guztietan erori zen Janen pasadizoan berri izanen dute. Burua hiltzeko azken eroldiaren ondoren ikuskizun mundura buelta-



Belen Nevado aktorea. @DETRITUS

tuko da, horren berri emateko prentsaurrekoa emanez. Azkenik, *Hot flash*. Emakumea tren geltokian. Dena utzi eta berriz hasteko adina duena. Urrun joan eta hot flash jo baino lehen hotela opatzea du helburu. Barrearen bidez hausnartzeko lanak.

Book Tube ak egiteko

KEDADA

DBHko ikasleendako

Martxoaren 16an
Arratsaldeko 18:00etan
URDIAINGO Aitziber elkarte

Izena eman
euskara1@sakana-mank.eus
 helbidera mezua bidalita

Antolatzailea:
Mank
 s a k a n a

Laguntzailea:
Urdiaingo Aitziber elkarte



Irurtzungo irakurzaileak. UTZITAKOA

Irurtzungo irakurle taldeak gatazka-liburuak esku artean

Yasmina Kadra idazle aljeriarren *El atentado* liburua izan zuten hizketagai otsailaren 16an. Jatorri arabiarreko ospitaleko mediku israelar baten pasadizoak kontatzen ditu Tel Aviventzatua izan eta gero. Irurtzungo irakurle taldeak hurrengo hitzordua martxoaren 15ean izanen du. Ordurako bere kideak Fernando Arabururen *Patria* liburua irakurrita joanen dira.



Erakusketa iragazten duen koadroa.

Mundiñanok bere margoak Lakuntzan ikusgai jarri ditu

Alvaro Mundiñano margolari etxarriarrak pintura erakusketa mustuko du gaur Lakuntzako kultur etxean. *Barne barnetik* izenburua jarri dio erakusketari. Hura bisitatu nahi duenak gaurtik martxoaren 11ra arte izanen du aukera, 17:00etatik 20:00etara. Gaur, 19:00etan, erakusketaren mustutze ekitaldia egingen dute eta bertaratuendako auzatea izanen da.

Japoniako ipuin-kontaketa tradizionala ezagutzeko aukera

Rakugo du izena eta Azpeitiko taldeak bihar, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean saioa eskainiko du

LAKUNTZA

Axen Escaladak, Arantzazu Maizek eta Maider Iburgurenek osatzen dute Azpeitiko Rakugo taldea. Yoshida Hiromi japoniar euskaldunaren esanetara jarri eta bera aurkezle dela, Asiako herrialdeko ahozko ipuin tradizionalak kontatuko dituzte, euskaraz. Eszena tokian japoniar erara eseriko dira, lurtean, aztalen gainean. Kimonoa jantzita, abanikoa eta zapia izanen dituzte aldean. Abanikoak erabilera ugari izanen du kontaktuzenean. Rakugolariak bakarka aritzen dira. Bakoitzak egiten du narrazioa eta pertsonai batietik bestera pasako da.

Hirukotea hasi aurretik Hiromik Rakugoaren inguruko azalpenak emanen ditu. Antza, kontakizun mota hori duela 400 bat urte sortu zen. Geroztik ahoz aho transmititu da eta kontala-



Azpeitiko Rakugo taldea. @HITZA

ri profesionalak dira haiek ematen dituztenak. Rakugoeak biezagarrak dituzten. Bat da, normalean helduei zuzendutako ipuin kontakizuna dela; bestea, berriz, barre pixka bat, edo asko, eragin nahi duela. Ongi pasatzeko egiten da.

Haize Berriak bandak eta musika ikasleak elkarrekin

"Hazi eta hezi musikaz" kontzertua eskainiko dute larunbatean, 19:30ean, Altsasuko Iortia kultur gunean

ALTSASU

Bost urteko etenaren ondoren joan den urtean berreskuratu zen Haize Berriak bandak musika eskoletako ikasleekin kontzertua egitea. Aurten ibarreko bandarekin Irurtzun, Lakuntza, Etxarri Aranatz eta Altsasuko musika eskolako ikasleek eskainiko dute kontzertua. Emanaldi horren bidez, bandaren eta musika eskolako ikasleen arteko lotura sendotu nahi da, haiek izanen baitira etorkizuneko bandako kideak. Gainera, ikasleek musika formazio handi bateko oholtza partekatzearen esperientzia bizitzeko aukera izanen dute.

Bandako kideekin batera 20 bat ikasle izanen dira kontzertua emanen dutenak; honako instrumentuak jotzen dutenak: saxofoia, klarineta, bateria, zeharkako txirula, tronboia eta



Haize Berriak abesbatzarekin. ARTXIBOA

bonbardina. Haiek eta Haize Berriak bandak filmetako musikaz osatutako errepertorioa eskainiko dute. Jendaurrean emanen dituzten piezen artean daude, besteak beste, *The pink panter*, *Hymn to the fallen*, *Aladdin* edo *Liturgical fanfare*.



BAZTERRETIK

MAR GONZALEZ RUIZ DE LARAMENDI

Ekialdeko haizea



Ekialde hurbilaren inguruan idazten diren berriak gudaz eta heriotzaz mintzo dira. Badirudi zenbaki, nozio eta datu orokorren azpian itzaltzen dutela sentimena. Kasu hauetan zaila da hitz hotzen bidez leku eta paisaia ezberdinak asmatzea, eta ezin dugu irudi horietan sakondu, ez ditugu lotzen. Haien atzean hauteman dezakegun paisaia ez dira narrazioaren senen jaio, telebistan erdizka ikusi ditugun hondamendien aztarnetatik baizik. Egunkarietan utzitako

esaldiek berez ezin dute ezer eraiki, eta sarri kontrakoa aurkezten digute: identitatekerik gabeko hiri suntsituak.

Horregatik guda etortzen zaidanean burura hiri deseginak ikusten ditut beti, zuhaitzik eta urtarorik gabeko eremuak. Hautsa eta sua: irudi haustiak. Sarri denbora une nahastuetan izoztu dela dirudi: tarteka mugitu eta berriz jeltzen da etengabe, errealitatea gif solteez osatua balego bezala. Zerbaitek eztanda egiten du eta irudi zatituak josiko dituen haizea ez da inon ageri.

Urteak pasa dira Edward Saidek *Orientalism* liburua argitaratu zuenetik. Bertan, betidanik saldu diguten ekialdearen ideia menperatzailea salatzen du. Ekialdeari buruz idatzi duten mendebaldearrek betiereko irudi finkoa eskaini digute,

ekialde osoa mugarik gabeko eremu lau homogeneoa balitz bezala. Hango biztanleak berdinak dirudite, lau ezaugarrien bidez zehaztu daitekeen kultura hertsiairen parte. Eta paisaia deskribatzen denean, bere misterio eta edertasunak ez du izaki primitibo horiekin harremanik.

Lau hitzetan zehaztu daiteke beraz giza arima, eta sinplifikatutako bazterrak, errazagoak omen dira kontrolatzen. Haizea irudietan sartzen ez den artean, transformazio oro idazten duenaren menpe mantenduko da. Eta horregatik, edo agian egunkaria irakurtzean sumatzen dudana arnas arazoengatik, berrietan falta den haizearekin gure begirada janztera gonbidatzen zaituztet: berak josi ditzala eroritako eraikinen irudiak eta esaldi hotzetan hilda jaiotzen diren hitzak. Erakusten ez digutenetan ere, munduko bazter guztietara ekartzen baitu haizeak aldaketa.

Urdiainen booktubeak egiteko deialdia egin diete gazteei

Liburu bati buruzko kritika edo iruzkina da, liburu baten irakurketa gomendatzeko norberak bere buruari egindako bideo-grabazioa, Youtuben zintzilikatzen dena. Hori da booktubea, ingelesezko book (liburua) eta Youtube (Interneteko bideo plataforma) hitzen batuketatik sortutako neologismoa.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Urdiaingo Aitziber elkartarekin batera, martxoaren 16ko 18:00etan jarri dute hitzordua. euskara1@sakana-mank-eus e-postan eman daiteke izena. Sakanako gazte-txoen Internet bidez irakurtzeko zaletasuna sustatzeko helburua du ekimenak. Horretarako, "munduan barna sekulako arrakasta izan duen booktube fenomeno baliatuz". Kamera aurrean nola jardun behar den ikasiko dute saioan. Azalpen horietaz aparte, aurten estreinakoz booktube saila duen Maria Markotegi sarietarako lanak prestatzeko aukera ere izanen da.

Arbizun emakumezko sortzaileen lanak erakusgai izanen dira

Arbizuko udaletzeko batzar gela beste behin erakusketa gela bihurtuko da. Oraingoan Emakumearen Eguna dela eta Arbizuko Udalak antolatutakoa izanen da. Emakumea gaia hartuta herriko bederatziz emakumeek sortutako pinturak, argazkiak eta bestelakoak izanen dira ikusgai izanen direnak. Haien lanak erakutsiko dituztenak honako sortzaileak dira: Ino Arana, Mila Berastegi, Argiñe Berastegi, Ramoni Berastegi, Cristina Fernandez, Inma Garcia, Katrin Ginea, Enara Insausti eta Iratxe Reparaz.

Arbizuko Udalak erakusketa horrekin "emakumearen sorkuntzari eta parte hartzeari ikusgarritasuna eman eta espazio bat eskaini" nahi dio. Erakusketa asteazkenean zabalduko da eta martxoaren 14ra arte zabalik egonen da. Hura ikusi nahi duenak udaletzeko batzar aretotik astegunetan pasa behar du, 16:30etik 20:00etara egonen da zabalik.

Irati Irigoien: "Holandan aritzea nahikoa saria da"

Asteburuan Junior mailako Espainiako Txapelketan, Kordoban, zilarrezko domina lortu zuen Irati Irigoien urdiaindarrak. Taekwondo Mundialetan parte hartzeko aukera du urdiaindarrak, baina horretarako Holandan puntuazio altua lortu beharko du

Maidar Betelu Ganboa URDIAIN

1 Noiz hasi zinen taekwondoan?

Orain dela 4 urte, 10 urterekin. Hau da nire laugarren urtea eta junior mailako lehen urtean nabil.

2 Kategoria barruan pisu ezberdinetan lehiatzen zarete?

Bai. Ni 59 kilo azpiko pisuan nago. Pisu gutxiago dutenek mugimendu azkarragoak egiten dituzte, ikusgarriagoak. Pisu altuagoen mugimenduak geldiagoak dira, baina teknikoagoak. Nire pisua gorantz begiratzen dago, baina erdi mailakoa da.

3 Hasieratik hasi zinen txapelketan lehiatzen?

Nire bigarren urtean hasi nintzen, Nafarroa mailakoetan. Eta ia, nire 3. urtean, kanpoan lehiatzen hasi nintzen eta Nafarroako selekzionarako hautatu ninduten. Iruñara goaz entrenatzera, entrenatzaile ezberdinekin aritzen gara eta trebakuntza borrokaldietara bideratuago dago. Hemen, Bargagainen ere gauzak egiten ditugu.

4 Gerardo Montero da zure irakaslea, Bargagain klubean.



Irati Irigoien bere irakasle Gerardo Monterorekin. UTZITAKOIA

Niretzako kristoren irakasle ona da Gerardo. Taekwondoaz izugarri daki, laugarren DAN maila dauka, baina horretaz gain, asko inplikatzan da ikasleekin eta lan asko egiten du gurekin, bai taekwondoan eta baita mai-

la pertsonalean ere. Altsasuko Bargagain taldean oso ongi pasatzen dugu eta harreman oso ona dugu.

5 Zuen maila gerrikoen koloreak definitzen du?

Bai, baina gerriko beltza lortu ondoren, DAN maila lortu dezakezu. DAN bakoitza lortzeko urte batzuk eman behar dira trebatzen. 4. DAN maila altua da, asko kostatzen da iristea. Nik, momentuz, gerriko urdina dut. Nahiko gutxi da borrokatzea tokatzen zaidan jendearekin alderatuta; gehienek gerriko beltza dute. Ondo lan egiten badut, kurtso honen bukaeran egin dezaket azterketa berria, gerriko marroia lortzeko.

6 Junior mailako Espainiako Taekwondo txapelketan parte hartu zenuen, Kordoban, eta zilarrezko domina lortu zenuen. Zorionak!

Eskerrik asko, super pozik nago. Ez nuen espero. Nafarroako selekzioan hiru neska gaude nire pisuan, eta ezin ginen hirurak Kordobara joan. Ni konbokatu izanagatik oso pozik nengoen, eta zilarrezko domina lortzea... izugarria izan da. Esan didate oso ongi ibili nintzela eta zilarra lortu nuela egindako lanarengatik. Txapelduna Valentziar selekzioarekin lehiatu zen Anastasia izan zen. Urrezko domina lortzen duena zuzenean doa Mundialetara, baina Anastasiak errusiar nazionalitatea du. Orduan, nire eta hirugarrena sailkatu zen Madrilgo selekzioko Elena Torreren artean erabakiko da nor doa Mundialera.

7 Aurten Turkian jokatuko diren Mundialetan aritzeko aukera duzu?

Bai, martxoaren bigarren asteburuan Holandan jokatuko den taekwondo txapelketan erabakiko da. Elena Torrek eta nik aurre selekzioko borrokaldi bat egin genuen eta berak irabazi

zuen, puntu batengatik. Orduan, bera Holandara Espainiako selekzioa ordezkatzuz joango da eta ni, aldiz, Bargagain klubaren izenean. Oraingoz, nik berak baino puntu gehiago ditut, eta Holandan puntuazio gehiago lortzen badut, Mundialetara joango naiz.

8 Nola ikusten duzu?

Martxoaren 8an joango naiz, Gerardo irakaslearekin. Estatutik kanpo ez naiz sekula atera, eta nolakoa den ikustera noa. Lortzen badut, ongi, eta ez badut lortzen, ez naiz gehiegi tristetu. Esperientzia hori bizi ahal izatea nahikotxo saria da. Etxekoak, lagunak... pozik daude, denek zoriondu naute.

9 Zortea izan dezazula!

Eskerrik asko!

10 Neska eta mutilen artean desberdintasuna dago?

Txikiak garenean, mutilek neskek baino gutxiago pentsatzen dute eta egiten dituzte ostiko gehiago eta dira ikusgarriagoak. Neskek gehiago pentsatzen dute nola egin gauza bakoitza. Baina, bestela, ez dago aldaketarik.

11 Taekwondoan aritzera gomendatuko zenuen jendea?

Bai, errespetua eta balore garrantzitsuak lantzen dira. Arte martzial hau diziplinarioa da, baina ez horrenbestera. Oso kirol polita da eta jende guztia gomendatzen diot, zeren berdin da zein adina duzun, nahi duzunean hasi zaitezke. Lortzen duzu elastikotasun handia izatea, eta gorputza kontrolatzen ikasten duzu. Gainera, lagun asko egiten dituzu.

Bazkide sarituak

- Mikele Aierdi Aierdi (Olazti)
- Arantxa Lasa Martinez (Olazti)
- Fidel Jimenez Marin (Etxarri Aranatz)
- Bittori Senar Andueza (Lizarraga)

MARTXOKO SARIAK:

1. SARIA:

EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
 EUREKA ZIENTZIAREN MUSEOA: 2 SARRERA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN

2., 3. ETA 4. SARIA:

DONOSTIAKO AQUARIUM: SARRERA BANA
 ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
 LACTURALE: ESNEKI LOTEA
 GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN



Ekain berri

